



GOIERRITARRA



**Santiago
bidea
Goierrin**



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 943 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA
ETA ORAIN **24** HILABETETAN ORDAINTZEKO AUKERA



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



**GOIERRITARRA aldizkaria lagundu,
urtean 1.500 pezetako kuota ordainduz.**

Izen abizenak:

Helbidea:

Herria: **Tfnoa.:** **Adina:** .. **NAN:**

Lanbidea: **Banketxea:** **Bulegoa:**

Kodea: **Kontu zenbakia:**

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitziber Murua, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Josune Amonda-
rain, Urko Irastorza, Edurne Albi-
zu, Nagore Etxeberria, Agurtzane
Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gu-
rutzaga, Idurre Eskisabel eta Na-
roa Arrietaa.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.600 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Citroen Bi Zaldien
bilkura egin zen
ekainaren 25etik 26ra
Zerainen**

Donostiako Bi zaldi elkarteak antolaturik, V. Ci-
troen Bi Zaldi markako autoen bilkura egin zen
ekainaren 25etik 27ra. Zerainen geldialdia egin
zuten. 25ean iritsi eta 26 eguerdian utzi zuten herria. 35
auto eta 54 lagun elkartu ziren auto berezi hauen aitzai-
kian. Ibilaldia Donostian bukatu zuten.

Zeraingo aterpetxean eta Tellerine nekazalturismo
etxean izan zuten ostatua eta otordu guztiak aterpetxe-
an egin zituzten. Zeraindarrek Citroen Bi Zaldiak ikus-
teko aukera izan zuten bezala, Bi Zaldi zaleek Zerain
herria ezagutzeko aukera izan zuten. Museoa, kartzela
eta zerrategia bisitatu zituzten. Zerrategira autoz joan
ziren.

Bitxi ugari ikusi ahal izan ziren Zeraingo plazan.
Guztiak ere bitxiak baliran zainduak. Denboran zertxo-
bait atzera egiteko aukera izan zen bertan. Donostia,
Gasteiz, Errioxa, Bartzelona, Madril, Ciudad Real, Se-
villa, Leon, Galizia, Asturias, Cantabria, Bordele, Tou-
losse eta Alemaniatik etorri ziren gidariak Zeraina.

BOTA BERTSOA

**Gipuzkoako
Eskolarteko
txapelketan botatako
bertsoak.**

*Lau oinak: amesti,
abesti, ezti, garesti*



Iban Urdangarin

Aspalditikan nauzu
erabat amesti,
izarretara joanda
hainbeste abesti,
hitz goxoak ugari
espresio ezti,
baina amets politak
dauzkagu garesti.



Hartz Aierbe

Gauero ibiltzen naiz
normalean amesti,
amets onak dauzkagu
guk oso garesti,
zu zera nere izar
eta nere ezti,
zuri botatzen dizut
bertso ta abesti.

**Eusko Jaularitz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Doan

Goierritarra hamabostekaria egiten dugunak asko gara: kazetariak, maketatzaileak, argazkilariak, herrietako kronistak, bertsolariak, iritzi emaileak...

Ni, oraintxe, orri zatitxo bat zikintzeko hitz batzuk idazten ari naizelarik, Goierritarra "egiten" ari naiz, egiten laguntzen ari naiz.

Zu zerorri ere, irakurle, Goierritarra "egiten" ari zara. Zer litzateke, bestela, aldizkari bat irakurlerik gabe?

Irakurri eta lagunartean, etxean, lantokian... komentatu egiten dira Goierritarra-ko kontuak. Horixe da aldizkaria bizirik dagoen seinale.

Doan idazten ditugu artikulua eta doan irakurtzen ditugu. Oraindik ere badira diruaren trukerik gabe egiten diren lanak, egiten diren aportazioak. Eskerrak!, oso polita baita gizarteari zer-bait musutruk aportatzea.

Gastuei aurre egiteko diru-laguntza eske ibili beharra daukagu, ordea, eta, esan beharra dago, bizirauteko lain lortzen dugula.

Dena dela, doan hainbeste bazterretara banatzen den hamabostekari hau jasotzen dugunok borondatezko laguntza ekonomikoa emateko aukera badugula esan nahi dizuet: urtean 1.500 pezeta ordainduz, laguntzaile bihurtzen gara, bizi-rauteko ziurtasun pixka bat

ematen diogu aldizkariari eta produktu baten truke ordainketa sinboliko bat egin egiten dugu (postako gastuak ordaintzeko besterik ez bada ere...).

Ni behintzat pozik nago Goierri, Euskal Herria eta Ameriketaraino! iristen den aldizkari bateko laguntzaile izateagatik.

Urtean 1.500 pezeta ornahik ordain lezake, langabetu eta ikasleak barne. Urtearen azkenean guztiontzat San Silbestre izango da era guztietara eta Goierritarrak iraun egingo du.

Aupa, alimo eta mila esker!

(Laguntzaile txartela bete nahi duenak 2. orrian du aukera).

Joxepa Madariaga
(Lazkao)

Ordiziako San Joan bezperako akelarrea

Badira urte batzuk, gure aintzindariak utzi diguten euskal kulturari jarraipen bat eman nahian, ordiziarrok San Joan gaua ospatzeko suaren inguruan biltzen garela. Honela, herritar orok, dantzari zein ikusle modura parte hartzen dugu-

larik. Honela San Joan sua, erabateko festa herrikoia da eta parte hartzeko deialdi zabala egin ohi da, era honetan, edonork bertan gurekin batera festa honetan gozatu dezan.

Akelarrea ospatzeko gastu batzuk daudenez, Udalak bere diru laguntza eman ohi zuen urtero. Baina orain dela urte batzuk diru laguntza ukatzen hasi zen, gure herritik hain urrun dauden presoen egoera soilik aipatzeagatik. Nahiz eta, diru laguntza ukatu guk akelarrea egiten jarraitu genuen erri-fei eta tabernariak emandako diruari esker. Aipatu behar gainera, urte guzti haue-tan herriarengandik jaso dugun harrera eta esker ona. Baina usadioa aurrera eramateagatik ere Su Gorri taldeko pertsona baten izenean isuna jartzera ere ausartu ziren. Baina horrek ere ez gaitu geldiarazi, kalera atera ginelako eta firma bilketa baten bidez eta herritarren iritziak eta erantzunak ikusi ondoren, Juan Vicente Erauskin alkateak berak zer eginik ez zuela ikusirik isuna kentzea erabaki baitzuen.

Aurten ere ekaina iritsi da eta aurreneko gauza Udalarir diru laguntza eskatzea izan da, inongo arazorik izango ez genuelakoan, eta hara non iristen zaigun Udaleko gobernu batzordearen eskutitza, "ekintza honen antolaketan lankidetz

ez ematea erabakitzen dela" esanez. Erantzun hori jaso ondoren, Juan Vicente Erauskin batzordeko kidearekin egoteko aukera izan genuen Su Gorri taldeko bi partaidek eta horrela erantzun zigun Erauskin: "betikoa, ekintza kultural batean presoen gaia aipatze hutsa, ekintza politiko batean bihurtzen dela eta ez digula horretarako inongo laguntzarik emango".

Guk gogor salatu nahi dugu jarrera lotsagarri eta antzu hau, eta are gehiago gaur egun gizartean bizi dugun une itxaropentsu honetan jarrera honek ez duelako inongo leku eta zentzurik. Baina, jakin ezazue ordiziarrok euskal kultura eta usadioa aurrera eramateko gai izan garela aurten ere, beraz, ekainaren 23an sasi eta traba guztien gainetik dantzari, txalapartari, musikari, herritar, artzai eta sorgin guztiok suaren inguruan elkartu ginen. Berriro ere, eskerrak eman behar Ordiziako tabernariei, musikariei eta gau horretan gurekin egon ziren eta izaterik izan ez zuten herritar guztiei.

Amaia Iztueta
(Ordiziako Su Gorri taldearen izenean)



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak
BEASAIN



TXANDAKA

Hondartzatik

Eztabaida handiak izaten ditut lagun askorekin: hondartza gorrotatu egiten dute. Kutrea iruditzen zaie. Jasanezina egiten zaie metro erdira jendea izatea; olio eta izerdi usaina; umeen garraisi eta gurasoen kexak; gaztetxoek zala-partak. Hala esaten dute.

Nik, ordea, ez diet erabat sinesten. Jasanezina egiten zaie hondartza, baina ez besteengatik: beren buruak egiten zaizkie jasangaitz. Izan ere, hondartza lekurik demokratiko eta zintzoenetako bat da. Ez dago disimulurako aukerarik. Jarrera estetiko (eta etiko?) guztiak galtzen dira: saiheksaldea salatzen du tripa sartzeko ahalegina, titiek ezin diote eutsi grabitatearen indarrari, eta izterren guritasuna (gurintasuna) inoiz baino nabariagoa da. Larru-gorri gaude, eta ondorioz, armarik gabe.

Besteek ere halaxe ikusten ditugu: tripa sartzeko bularra puztutzen, haragi lasatuak gorde ezinik, petral, larri. Lagun batek esaten duen bezala, kutreak gara denok; hondartza lekuko.

Baina horrek guztiak badu bere buelta: hondartzan herriko alkatearekin, ertzainburuarekin, eskolako zuzendariarekin, lantegiko pertsonal arduradunarekin, eta gainerako kargudunekin topo egiten duzunean haiek ere tripa sartzeko keinua egiten dutela konturatzen baidzara. Kutretasunak berdintzen gaitu.

Kutrea baina goxoa. Goxoa baita, ni une honetan bezala, eguzki berotan egotea, itsasoko ura iletik tantan-ka, eta kresal gazia azalean.

Idurre Eskisabel Larrañaga



Zer duzu gustukoango: mendia ala hondartza?

Sergio Nuñez

**14 urte, ikaslea
beasaindarra**

Mendia. Lakuetara joatea ere gustatzen zait. Baina udan oporretan hondartzara joango naiz, amarengatik.



German Herrador

**14 urte, ikaslea
beasaindarra**

Hondartza. Hemengo hondartzetan Zumaiakoa gustatzen zait gehien.



Felix Sukia

**39 urte, liburuzaina
beasaindarra**

Mendia, baina tartekatu beharra izaten dut, emazteari hondartza gustatzen zaio eta. Gainera Goierritik, bai mendia eta bai hondartza, oso gertu dauzkagu.



AINHOA GOIBURU Urentzat saria
Mandubiko bentan 4 lagunentzat afaria
irabazi du

GOIERRITARRA aldizkariako inkesta erantzun
dutenen artean egindako zozketan

**Mila esker inkesta erantzun duzuen guztioi
Aldizkaria hobetzeko izango delakoan gaude**

ZINEA

BEASAIN:

'La sombra del faraon'.

Ostirala 2: 22:15; larunbata 3: 19:30 - 22:15; igandea 4: 19:30 - 22:15; astelehena 5: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Todo sobre mi madre'.

Ostirala 2: 22:15; larunbata 3: 19:30 - 22:15; igandea 4: 19:30 - 22:15; astelehena 5: 19:30.

'Mi gran amigo Joe'.

Igandea 4: 16:45.

BERTSOLARIAK

ATAUN:

Uztailak 2, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña, 12:30ean, Aiako plazan.

MUTILOA:

Uztailak 4, Zeberio eta Gorrotxategi, 13:00etan.

MUSIKA

ATAUN:

Uztailak 3, Joxemi eta Aloñaren kantaldia, 23:00etan. Ondoren, Etzakit. Aiako plazan.

BEASAIN:

Uztailak 2, Kontrairo, diska berriaren aurkezpena 24:00etan, Arriaranen.

Uztailak 3, Xitoak, 23:00etan, Arriaranen.

Uztailak 9, Liriako haur musika bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, arratsaldeko 7,30etan.

MUTILOA:

Uztailak 2, Etzakit 23:00etan.

Uztailak 3, Amaia eta Kristina eta Maixa eta Ixiar, 23:30ean.

DANTZAK

ATAUN:

Uztailak 4, XIV. Dantzari Txikien txapelketa, 17:30ean, Aiako plazan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Uztailaren 23ra arte, Agustín Caballeroren grabatu erakusketa, Aterpe tabernan.

Uztailaren 4ra arte, Buztina Zeramika-tailerrekoen erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Uztailaren 15era arte, Okupgraf 99 Barrenan: 'Beste euskarriak, beste formatoak' erakusketa. Alfonso Albacete, Jon Mikel Euba, Xabier Lasa, Juan Luis Moraza, Jose Luis Zumeta, Iñaki Barea...ren lanak ikusgai.

MENDI-IRTEERAK

Ordiziako mendizaleak:

Uztailak 4: Aizkorri.

Uztailak 10-11: Pont de Espagne - Marcadeau - Panticosa.



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN



LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

RENAULT AGENTZIA

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93 ORDIZIA

VOLVO TOYOTA ŠKODA

Volswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Lizarrustiko parketxearen inauguraketa

Igande honetan, uztailak 4 inauguratuko da Lizarrustiko parketxe berria. Goizeko 10etan trikitilarien soinuak lagunduta salda hartu ondoren Lareora joan etorria egingo dute bertaratzen direnek. Eguerdiko 12etan luntx koxkor bat izango da, hau ere trikitilarien soinuekin.

Parketxean, Aralar Parke Naturaleko harrera eta interpretazio zentrua, parke naturaleko diaporama eta bideo interaktiboa egongo dira. Honez gain 36 lagunen-tzako literak, 2 logela bikoitz eta 40 lagunetzat jangela izango dira.

Parketxea 'Mendiak eta Herriak S. L.' enpresak kudeatuko du, eta bertako partaide da Marron ataundar mendizale ezaguna. Marronek mendizale eta naturazale guztiak gonbidatzen ditu inaugurazio ekitaldian parte hartu eta insatalkuntza berriak ezagutzera.

EKAINEN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Ihesi**
Asier Agirresarobe (Argia)
- 2- **Oporretako koadernoak**
Elkar (Elkar)
- 3- **Euskal Herriko mapa**
Joseba Gereño (Joseba Gereño)
- 4- **Putzu**
Txillardegi (Elkar)
- 5- **Kondoit hiltzailea**
Ralf König (Arabera)

DISKOAK:

- 1- **Fermin Muguruza**
'Brigada Sound System'
(Esan ozenki)
- 2- **Su ta gar** 'Su ta gar 1987-89'
(Gaztelupeko hotsak)
- 3- **Alaitz eta Maider**
'Inshala' (Elkar)
- 4- **Hemendik at**
'Orain' (Gor)
- 5- **Paco Ibañez, Imanol**
'Oroitzen' (A flor de tiempo)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia)
943882934.

Uztailak 3-4: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain)
943880232.

Uztailak 10-11: Lournaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia)
943881828.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Etxebizitza salgai Lazkaon. Amueblatua. Bero-gailuarekin. Dena berritua. Argia eta leku onean. 943 160237 / 943 852818.

☐ Laredon apartamentua alokatzen da uda honetan. Hondartza ondoan dago. 943 795280 / 656 717745

☐ Neska bat behar da Iruñean pisua osatzeko. Unibertsitateetatik oso gertu. 943-653269. Maialen.

☐ Pisua salgai Itsasondan. 943 887482.

☐ Oropesan apartamentua alokatzen da. Hondartzaren ondoan eta igerilekuarekin. 943-884374 / 943-882156.

☐ Etxea alokatu edo erosi nahi nuke. 943-287300 (goizetan); 943-894309 (arratsaldetan).

Salerosketak:

☐ Volkswagen Caravelle furgoneta salgai. SS-AS matrikuladuna. 75.000 kilometro. Kanpinerako egokitua. 943 161964. 12:00etatik 14:00etara eta 20:00etatik 21:30era deitu.

☐ Kady markako motorra salgai. 20.000 pezetan. 943 889634. 12:30etik 14:00etara deitu.

☐ Monty bizikleta salgai. Zilar kolorekoa eta egoera onean. 25.000 pezetan. 943 889634. 12:30etatik 14:00etara deitu.

☐ Pianoa salgai. 88 tekla, sordinarekin, 1,10 zm. altura, soka gurutzatuak, gako metalikoak, hupfle. 150.000 pezetan. 943.881096. (Bakarne).

☐ 'Comanche' kanpin gurdia salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943 885923.

Bestelakoak:

☐ Udako mekanografia ikastaro intentsiboak Beasainen eta Idiazabalen. 943 889993 / 943 187188.

☐ Cocker hispaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943 886164.

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Teknologia elektrikoa

GOIERRI AKADEMIA

✓ INGELESA

Talde txikiak


- Orokorra: DBH, batxilergo, moduloak... Kurtsoa gainditu, nota igo edo hurrengo urtean erosi ibiltzeko.
- Unibertsitariantzat: Kimika, ingenieritza, turismo, magisterio, informatika
- Komertziala: azterketen prestaketa.

✓ MARRAZKETA TEKNIKOAK

Mekanika
Galdaragintza
Plano interpretazioak
Desarrolloak

K. Nagusia, 32 ☎ 943 888203 BEASAIN

ERREZETA



Gorka Izagirre
Ostatua
Mutiloa

TXOKOLATEZKO TRUFAK

Osagaiak: 1.200 gramo txokolate (egitekoa), esne kondentsatu pote handi bat eta tubo bat, ron kopa bat, 160 gramo gurin.

Txokolatea eta gurina maria bainuan urtzen jarri, su bazu samarrean. Esne kondentsatua nahastu eta ondoren, rona ere bai. Guztia ondo nahastu. Ontzi batera atera eta hozten denean, bola txikiak egin. Txokolate hautsetan eta fideo-tan pasatu.



Naroa Arrieta
Kemen KOZeko
dietista eta elikagaien
zientzian teknologa

Azken ikerketek erakusten digutena aztertuta, pertsona gizenen kopurua handitu egin dela ikusten da. Estatu Batuetako estatistikek honako datuak ematen dituzte: 20 urtetik gorako populazioaren herena bere pisu egokitik gora aurkitzen da, aldiz, pertsona gazteen artean aurkitutako anorexi eta bulimia kasuak goraka doaz.

Guzti honi aurre egiteko, psikologian, elikaduran eta medikutzan adituek jendea informatzea eta oinarriko gomendioak luzatzea derri-gorrezkoa dela ikusi dute.

✱ **Argaltze dieta** bat egitera bultzatu gaitzake *egoera soziologikoak* (emakumezkoak gehienbat), arazo metabolikoak (diabetea, hiperkolesterolemia) edo bihotz aparatuko gaixotasunak (hipertentsioa, arteriosklerosia) eta horretarako derrigorrezko gomendio batzuk izango ditugu kontutan:

AHOLKUA

Dieta egokia ala dieta majikoa

✱ **Ariketa fisikoaren** alde onuragarriak asko dira. Tentsio altua, insulina hormona-ren eskasia, kolesterola maila altua, eta abar luze bati aurre egiteko lagunduko du. Ariketa fisikoaren iraupena eta intentsitatea zeintzuk izango diren jakitea guztiz garrantzitsua da eta horretarako jakitunen eskuetan ipintzea gomendagarria litzateke, bihotz funtzionamendu egokia ikusiz, ariketa fisiko egokiena presta ahal izateko.

✱ **Elikadura ohituren egokitzea** funtsezko gaia izango da argaldu nahi duenarentzat. Aldakuntzak egiteko garaian derrigorrezkoa da kasu bakoitza aztertzea, ahalik eta aldakuntza txikiak eginez helburua modu errezago batean lortzeko.

✓ **Dieta hipokalorikoa** gomendatzen da. Gorputzari bere funtzionamendurako behar duen energia kopuru bat ezabatzen zaio gorputzeko grasa ehunetatik lortu ahal izateko. Dieta oso hipokalorikoak (1.000 KCal baino gutxiago) asko kontrolatu behar dira eta epe motzera gomendatzen dira soilik. Dieta hauetan bitamina eta minerale suplementazioa derrigorrezkoa izango da eta argaldutakoa berehala irabazten da, grasa erretzeaz gain muskulua eta ura galtzen baitira, batik bat.

✓ **Hidratazio maila egokia.** Gorputzak behar ez dituen sustantziak kanporatzeko beharrezkoa da ura. Energiarik gabeko molekula hau edozein momentuan edan daiteke, baldin eta jakien asimilazioa ez badu oztopatzen. Horretarako zenbait puntu kontutan izango ditugu; tenperatura ez oso hotzean eta pixkana edatea, uraren kalitatea eta konposizioa. Gomendioek diote egunero 1 litro ur (4-5 baso) edan beharko lirateke, gutxienez.

✓ **Janarien banaketa;** egunean zehar lau edo bost janaldietan banatu beharko genuke gure dieta, otordu txikiagoak eginez goseaz kontrolatzeko.

✱ **Farmakoen erabilpena,** kasu batzuetan beharrezkoak dira gaixotasun batzuei aurre egiteko (Hipertentsioa, anemiak, hipotiroidismoa, idorreria, e.a.) baina kasu hauetatik kanpo ez litzateke erabilpena bultzatu behar. Laxanteak, diuretikoak, zuntzak eta debekatuta dauden hainbat farmakoek *adikzioa* edo *beharra* eta efektu kaltegarriak sortu ditzazketen. Argaltzeko formula majikorik ez dagoela ziurta daiteke eta komunikazio bideetatik saltzen dizkiguten farmako horiek (Xenical, adibidez) ere badute bere alde iluna.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

Etxegarateko bikoizketaren aldeko plataforma desegin da

Etxegarateko mendatea banatzearen aldeko plataformaren jarraipen batzordea Idiazabalgo udaletxean bildu zen ekainaren 21ean. Plataforman ordezkariak duten lau eskualdeko alkateen oniritziz, 'Etxegarateko mendatearen banaketa lortzea' lemapean sorturiko plataformaren lanak amaitutzat ematea onetsi zuten. "Banaketaren gauzatzea adjudikaturik dagoenez, eta lanak berehala hasiko direnez, plataforma honek bukatutzat jotzen du bere lana eta laisterren, hobe-kuntza somatuko dugularik eta lautadarako pasagune honetan gertatzen diren ezbeharren kopurua gutxituko delarik", zioen plataformak bidalitako prentsa oharra.

"Gure errebindikazioaren aurrean administrazioak hartutako baieztoko konprometua eskertzen dugu eta bereziki, gaur egun, Gipuzkoako Errepubliketako Diputatua den Antton Jaimen Jaunaren jarrera eta harrera", jarraitzen du prentsa oharra.

Mikel Azurmendi

Beasaingo Mikel Azurmendi presoari 60 urteko kartzela zigorra ezarri diote, Sevilako PPko zinegotzia eta bere emaztea, Becerril eta Garcia hiltzeagatik.

'Kanpo zorra, betiko zorra?'

Gipuzkoako Caritasen koordinatutapean, 'Kanpo zorra, betiko zorra?' kanpaina ari da burutzen. Sinadura bilketak egin dituzte eta Gipuzkoako hainbat udal, ikastetxe eta elkarte beraien atxekimentua azaldu dute. Goierriren kasuan, Ordiziako Kimetz emakume elkarteak, Gabiriako Balanzategi eskola eta Idiazabal eta Ordiziako udalek egin dute bat. Mundu osoan ari dira hirugarren munduko herrialdeei kanpo zorra barkatzeko eskatuz kanpaina berezia egiten.

Segurako dantza txapelketa

Kimetz Epelde eta Eneritz Larrañaga azkoitiarrek irabazi dute aurten ere Segurako Euskal Herriko sueltoko

dantza txapelketa. Finalera sailkatu zen bikoterik gazteena, Xabier Azurmendi zegasarra eta Janire Urbieta bergarra izan ziren. Lehenengo aldiz aurkeztutako artean beraiei eman zioten saria. Finalean sartzea lortu zuten. Segurako bi bikoteei ere, Miren Gallastegi eta Antton Fernandez eta Saioa Arostegi eta Iker Rodriguezi, herritarrek izateagatik sari bereziak eman zizkieten. 23 bikote hartu zuten parte.

'Okupgraf 99' Goierri

Zumalakarregi Museoak eta Ordiziako Artelekuren 'Okupgraf 99' proiektuarekin bat egin dute. Zumalakarregi museoak 'XIX. mendeko grabatua' erakusketa dauka ikusgai. Teknika eta jatorri desberdinetako irudiak, gai militarrek eta zibilak, belikoak eta pintoreskoak, Euskal Herrikoak eta kanpokoak, e.a. daude ikusgai bertan.

Kimetz

Ordiziako emakume taldeak, Kimetzek, antolatutako V. Ipuinen lehiaketako sari-



Konprometuzaren eguna

Presoak Euskal Herriratzea gauatzeko konpromisoak hartu behar direla aldarrikatzeko, Konpromisoaren Eguna ospatu zen ekainaren 25ean, Senideak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta. Ordizia, Beasain eta Seguran ekitaldi bereziak egin zituzten. Argazkian, Ordiziako futbol partidua.

Zegamako Asemendi baserriari laguntza

Erre berria den Asemendi baserriko familiari lagundu nahian, ekainaren 28an Zegamako Udaletxean bilera egin zen. Bertan zenbait herritar bildu zen eta proposamen ezberdinak jaso ziren.

Baina, hau dena aurrera eraman ahal izateko, lan batzorde bat osatzea komenigarria izango litzatekela ikusi zen. Batzorde horretan herriko elkarteetatik eta auzo ezberdinetako ordezkariaren bat egotearen komenigarritasuna azpimarkatu zen.

Batzorde hau martxan jartzeko asmoz, hurrengo bilera, uztailaren 6an, asteartea, iluntzeko 20,30ean egingo da Udaletxean. Denon laguntza behar denez, animatu!

Langabetuentzako moduloak

Goierri Lanbide Hastapen ikastetxeak lanbide desberdinak ikasteko aukera ematen du 1999/2000. ikasturterako. Lau modulo daude aukeran: auto eta motorren mekanika, karrozeriako pintura, sukaldaritza-gozogintza eta soldadura.

Uztailaren lehenengo hamabostaldian eman behar da izena, Goierri langintza eskolan dagoen bulegoan (943-889200).

Moduloetan parte hartzeko betebeharrak: Goierri bailarako udalerriaren batean erroldatuta egotea; langabetua izatea eta 16-20 urte bitarteko gaztea izatea.

banaketa egin zen ekainaren 13an, Barrena jauregian. Euskarazko atalean Ikaztegi-tako Maialen Zubeldiak jaso zuen saria eta gaztele-rarazkoan, Donostiako Juan

Gonzalezek. Epaimahaikideek, lanen kalitate mailaren igoera azpimarratu zuten.

'LA RUTA QUETZAL ARGENTARIA' GOIERRIN BARRENA: San Adrianen garrantzia Santiago bidean

Ekainaren 25ean etorri ziren mundu guztiko 44 herrialdeetako 16-17 urte gazte 'La Ruta Quetzal Argentaria'rekin Goierrira. 350 bat gazte etorri ziren, Urbiatik, San Adriana eta handik Zegamara eta Segurara. Barnealdeko Santiago bidea ezagutzea zuten helburu eta San Adriango kobazuloaren garrantzia azaldu zien Micaela Portillo historialari katedradunak. Beraren ikasgaia laburtu nahi izan dugu erreportaia honetan.

San Adriango bideak historian zehar, baita Santiago bidean ere, izan duen garrantzia azpimarratu zuen Micaela Portillok bere hitzaldian. Historian atzera egingo dugu, lerro hauetan.

San Adrian bi Europen arteko zubia zen kokapenari dagokionez. Kantauri itsasorako isuria, Europa iparraldeko isuria zen Gipuzkoa aldekoa. Bestea, Ebrora, Europar Mediterraneora zihoana, Araba aldekoa.

Abereen joan-etorritako, trashumantziarako bidea izan zen lehenengo. Ertarokan olio, garia... ere garraiatzen zen bertatik. XIII. mendean naziorteko garrantzia hartu zuen, komertzio eta

Bitxikeriak

- ✖ Iragarrita zegoen baino ia 3 ordu beranduago etorri ziren gazteak, 3 taldetan banatuta. Eskerrak eguraldi bikaina zegoena San Adriango aterpetxearen inguruan zain egoteko! Bakarren batek ederki aprobetxatu zuen eguzkia hartzeko.
- ✖ Telefono mugikorrenhotsak apurtzen zuen inguruko ixiltasuna. Modernitatea ondo etorri zen, ibiltarien nondik norakoen berri jakiteko. Bakarren batek telefonoa alperrik samar eraman zuen, kobertura dela eta ezin izan baitzuen deirik egin.
- ✖ Micaela Portillo historialaria, 77 urtekoa, ahizparekin, mediku eta txofer partikularrekin etorri zen Gasteiztik.
- ✖ Gineako neska bat, oinetakorik gabe ibiltzen ohitua dagoenez, Urbian botak kendu eta oinez etorri zen.



- ✖ Lur jota baina gustora etorri ziren gazteak. Sevillako neska batek esan zigunez, neka-neka eginagatik, merezi du horrelako bidaia bat egitea. *"Nahiz eta 4 egun dutxatu gabe egon, lo gutxi egin, asko ibili, denbora gutxian gauza asko ikusi, merezi du"*.
- ✖ Ibiltarien artean Hego Amerikakoak, Estatu Batuetakoak, Kanadako eskimala, Europakoak, Israel, Gineakoa, Filipinasekoak... zeuden. Tartean 3 euskaldun ziren. Boliviako Amazonaseko Cuna etnikako indigena bat ere bai.

erromes bidea bilakatu baitzen.

Leku estrategiko garrantzitsua bilakatu zen San Adrian XIII. mendean. Araba eta Gipuzkoa bi erreinuen artean zebiltzan borrokan, Nafarroako eta Gaztelako erreinuen artean. XIII. mendean Alfonso VIII.aren Gaztelako erreinuaren menpe gelditu ziren bai Araba eta bai Gipuzkoa. Orduan San Adriango bidea indartzeko ahalegin handia egin zuen Alfonsotso VIII.ak, Gaskonia

aldera eta Europara pasatzeko bere arerio zen Nafarroatik pasatu beharrik ez izateko.

Ekonomia garrantzia handia hartzen joango da garai hartan. Truke sistemaren orde, moneta-ekonomia garatuko da. Artilea asko kotizatuko da Ingalaterran eta Flandesen, tapizeak eta abar egiteko. Gaztelatik iparraldera artile asko bidaltzen zen, baita eztia, olio eta garia ere, mando eta zaldiekin. Itzulerakoan, burdina ekar-

tzen zuten. Gipuzkoan eta Bizkaian burdina landu eta Gaztelaraino bidaliko dute. Burdinolek garrantzia handia hartuko dute.

Erromes bidea ere izango da. Nafarroakoa, Orreagatik pasatzen zena, zen Santiago bide nagusia. Baina Gaztelako erregeari San Adriango bidea indartzea interesatzen zitzaion. Horretarako, ibilbide horretan zeuden herriei pribilegio handiak eman zizkion Carlos I.ak. Gaztelako jendea, eskulana,

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILDEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak
goierritarren zerbitzuan
☎ 943 160 120
Joan Iturrilalde, 5
BEASAIN

- Unibertsitate maila:**
- ✓ Ingeniaritza
 - ✓ Enpresa zientziak
 - ✓ Fisika eta kimika
 - ✓ ...

- Logse (I eta II):**
- ✓ Ikasgai guztiak
 - ✓ Ekaina - uztaila - iraila
 - ✓ Selektibitatea

- Lehen eta bigarren hezkuntza:**
- ✓ Ortografia
 - ✓ Kalkulua eta buruketak
 - ✓ Testuaren lanketa
 - ✓ Ikasketa teknikak

Kurtsoan ondo gauditu
gabeko gaien lanketa
Datorren ikasturterako
prestaketa
Eskatu informazioa orain!

herri pribilegiatuetara joaten hasiko da. Herri hauek merkatarientzat eta erromesentzat oso garrantzitsuak bilakatuko dira. Zapatariak, errementariak, ostatuak... daude bertan. Villas Seguras (Segura), Villas Francas (Ordizia)... izenak jarri zizkien herriek, herri babestuak zirelako.

Baina denborarekin kolapso handiak sortu ziren eta Leintz bailarako bidea indartzen hasi ziren. 1775. urtean bide garrantzitsuagoa izango da Leinzkoa.

Tunela

San Adriango tunela hiru ataletan zegoen banatua: ostatua, ermita eta gaztelua. Jan-edanerako, otoitzerako eta babestuta sentitzeko lekua zen. Tunela bera gotorleku bihurtu zen. 500 bat lagunentzako lekua omen zegoen bertan. Urkalekua Gipuzkoa eta Arabako mugan zegoen.

Tuneletik pasatzeko beldur izaten ziren erromes eta merkataria. Tunela iluna eta beldurgarria omen zen. Hala ere, inguruko basoa miresten zuten ibiltariak. Tunelean zerga edo arantzelari ordiandu behar izaten zen.



Miguel De La Cuadra Salcedo

14 urte daramatza nafar abentulari ezagunak 'Ruta Quetzal' antolatzen eta bere ustez "beharrezkoa zen historian zehar hain garrantzitsua den Euskal Herriatik pasatzea. Gainera Santiago biderik zaharrenak garrantzia berreskuratu beharra dauka, bai San Adriandik pasatzen denak eta baita kostatik doanak ere. Bide zahar hauek bide gazte eta abenturazkoak izateko egoiak dira. Eusko Jaurlaritzaren laguntza ikaragarria izan dugu hau aurrera eramateko".

16 eta 17 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute 'Ruta Quetzal'en, herrialde bakoitzeko hezkuntza ministeritzak lehiaketa bidez aukeratutakoak. Elkar eza-gutzeko aukera dute abentura honetan. Donejakue bi-



dean hilabete egin ondoren Panamara joango dira beste hilabeterako. "Gainera Panamako kanaleko lehen presa Gatun-goia 1820 inguruan euskaldun baten inbentuaren patentearekin egin zen. Donostiako alkate izandako baten bilobarena, Pedro Nabarro Arzak. Gainera ia 11.000 euskaldun aritu ziren kanala egiteko lanetan. Batez ere nafar eta gipuzkoarrak ziren, zuhaitzak mozteko aizkolariak behar ziren, trenbidea egin beharra zegoen... Bertako indigenen eta inguruko irletako beltzaranen laukoitza ordaintzen zieten euskaldunak. Iparramerikarrak harrituta geratzen omen ziren euskaldunen lanarekin", azaldu digu De La Cuadra Salcedok.

Taldeko Hegoamerikako askok abizen euskaldunak dituzte, edo beraien inguruetako herri eta kale askok euskal izenak dituztenez, Euskal Herrian egotea eta beraien historia gehiago ikastea garrantzitsua da beraientzat.

Quetzal abentura hau Unescoren babespean egiten da eta tolerantziaren mezua zabaltzen ari dira. "Hainbat herri ezberdinetako gazteak elkartu eta hasiera, kulto musulmana mezkitan, judutarra sinagogan eta kristaua eliza batean eginez eman genion Tolledon. Natura eta ingurugiroa ezagutuz alde honetatik ere toleranteagoak izaten ikasiko dutelakoan gaude", dio bukatzeko De La Cuadra.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266 Faxes: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km **BEASAIN**



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz bestea

MANDUBIKO BENTA
jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean


Tfnoa.: 943 88 26 73

Antton Garcia del Molino preso ordiziarra: etxetik urrun, ebakuntza beharrean

Ordiziako Antton Garcia del Molino presoak hernia diskala du. Ebakuntzaren beharrean dago. Castellonen dago preso. Irail honetan 68 urte beteko ditu eta hauetatik azken 18ak kartzelan pasa ditu. Duela 3 urtez geroztik kalean egon beharko litzake zigorraren 3/4ak bete baitzituen. Etxekoek legeak dioen bezala, Antton etxeratzea eskatzen dute, edo txarrean, Euskal Herriko kartzelaren batera ekartzea. ebakuntza hemen eta konfidantzazko medikuek egin diezaioten. *"Erraz esaten da 3 urte, baina, luze egiten da. Gainera etxean egongo balitz, legeaz dagokin bezala, gaitzak eragindako min eta sufrimenduak ez ziren hainbeste luzatuko",* dio elkarriketatu dugun Nieves, Anttonen arreba.

- Zein osasun arazo du Anttonek?

- Hasieran aldaka edo kade-rako gaixotasuna zuela uste zen baina azkeneko berrien arabera, hernia diskala dauka. Hernia diskalarekin ezin da oinez ibili hanka batean min handia duelako eta ia egun guztia eserita egon beharrean dago. Egunen batean ebakuntza egin beharko



Goian, ekainaren 26an Ordiziatik Castellongo kartzelara joandakoak, kartzelako atarian ateratako argazkian.

Ezkerrean Antton Garcia del Molinoren argazkia, hernia diskala du eta ebakuntza behar du. Duela 3 urtetik kalean egon behar luke, zigorraren 3/4ak beteta.

zaio. Gehiago begiratzekoak dira baina ez dakigu noiz eta zain gaude zein berri iritsiko ote den.

Ebakuntza egitekotan hemen egitea nahi dugu, etxetik gertueneko kartzelara ekar dezatela. 68 urterekin eta dituen arazoez etxetik ahalik eta gertuen egoteko irrikaz dago bera eta sendia ere asko ari da sufritzen, pentsa ebakuntza han egin eta sendikook hemendik nola biziko dugun. Konfidantzazko medikuari ez diote gaixoa ikusten utzi, ebakuntza Castellonen egin behar badiote ere berak hemengo mediku batek egitea eskatu du.

- Nolakoz bizi baldintzak dituzte Castellongo kartzelan?

- Osasun arazoak dituela eta kartzelako bizi baldintzak hobetu beharrean, gelaz aldatzen dute hilabetero.

Traste guztiak batetik bestera eramanez, honetan kartzela kideen laguntza izaten du, eta gela berria garbitzen aritu beharra izaten du bere ezintasunean. Duela 3 urte epaileak gela aldaketa hauek debekatu bazituen ere oraindik hilero egiten jarraitzen dute kartzela funtzionarioek.

Castellon-go kartzelan bixitak oso zailak dira, bisita geletan elkar ez baitugu entzuten. Anttonek belarri bateko entzumena galdua du eta bestetik ezer gutxi entzuten du. Orduan bisita guztia bata besteari oihuka, entzuteko zirriztuan belarria jarrita eta elkar ulertu ezinik pasatzen dugu. Gainera errepidean hainbeste kilometro egitean bera urduri egoten da eta nahiago du bisitatzea joan beharrean telefonoz hitz egitea. Horrela

hobeto entzuten digu eta lasaigo egoten da. Beraz, iganderoko telefono deia da berarekin dugun harremana. Castellonen dagoen 12 urte hauetan, bisita bisita edo bisita intimorik ez dugu izan, bera biluztera behartzen dutelako. Hau dela eta 12 urteetan ez du sendiarako baten besarkadarik edo musurik izan eta hori oso gogorra da. Ni ziur nago anaia kartzelaz aldatu izan balute, honezkero kalean egongo litzateke.

- Ordiziarrek ari al dira mugitzen Anttonen alde?

- Ordiziako alkateak telefonoz hitz egin du kartzelako zuzendariarekin eta Mayor Orejarekin ere hitz egitekoan da. Aste honetan erantzunaren zain gaude. Baina asteak joan eta joan eta hemen erantzunik ez dago, itxaronaldia buka ezina egiten da eta pentsatzen dut Anttoni barruan askoz ere luzeago egingo zaiola. Antton etxera ekartzea lortzeko ahalik eta ate gehien joango ditugu.

Ordiziara plataforma ere lan handia ari da egiten eta bere alde egin zen manifestazioan ere herriaren erantzuna ona izan zen, denek beharra izango dugu. Oso garrantzitsua dalako erantzuna eta presioa, jakin dezatela ez dagoela bakarrik. Lehenik etxean nahi dugu, eta bere txarrean Euskal Herriko kartzela batean.

Larunbatean Ordiziatik autobusean joan ginen kartzela aurrean konzentrazioa egin eta bertako zuzendariarekin elkarriketa izateko asmoarekin baina ez zuen gurekin biltzerik onartu.

Mikel Zumarraga ormaiztegiarra etxean, 13 urte kartzelan egon ondoren

Kartzelan ia 13 urte pasatu ondoren, Mikel Zumarraga kalean da ekainaren 10az geroztik. Azkeneko 4 urteak Iruñeako kartzelan egin ditu. Sakabanaketa edo dispersioa ezagutu du Mikelek eta Carabanchel, Alcalá-Meco, Herrera, Sevilla, Ocañako eta Orense kartzeletan egon da. Pozik dago Mikel kalean dagoelako, baina kartzela barruan gelditu direnak oso gogoan ditu.

Iruñeako epaile batek, Iruñeako kartzelan zigorraren 3/4ak beteta zituzten presoak kaleratzeko agindua eman zuen. Epaile batek eman duen era honetako lehenengo erabakia izan da. Mikelek adierazi digunez, "epaileak legea bete besterik ez du egin. 3 preso egun berean batera atera ginen. Berezia izan da, presoak indibidualizatzeke joera baitaukatete. Bada legea betetzeko garaia. Ea beste epaileengan eragina duen". Iruñeako epaileak euskal gizartearen urte askotako eskakizuna bete du ormaiztegiarraren esanetan. Herrietan presoan eskubideen aldeko plataforma ugari ari da sortzen, Ormaiztegin barne, eta Mikelek oso garrantzitsua ikusten du borrokan jarraitzea, "Mayor Orejak ez baitu kartzeletako


politikarik aldatuko. Presoak kartzela ezberdinetan sakabanatzearekin presoek kolektiboarekin apurtu nahi zuten. Lortu dute presoek arteko eztabaidak, erabakiak hartzea... oztapatzea. Alde horretatik lortu dute kolektiboa apurtzea eta indibidualizatzea, kartzelaren pisu osoa bakoitzarengan bakarrik ezartzea. Egoera horretan errazagoa da pertsona erortzea. Baina oso gutxi erori dira. Nahiz eta beraien helburua ez lortu, politika horrekin jarraitzen dute. Hori mendekua da".

HBko Mahai Nazionalekoen kasua ere aipatu du Mikelek. "Ez dakit gizartea zenbateraino jabetu den HBko Mahai Nazionalarekin egin denarekin; bideo bategatik alderdi baten zuzendaritza guztia kartzelan sartzea. Demokrazia eza adierazten du horrek. Larritasun handiko gertaera da".

Sentsibilizazio handia

Kalean presoan gaiaren inguruko sentsibilizazio handiago ikusten du Mikelek. "Gizartearen zabaldua dago legea bete egin behar dela, baina batzuk ez dute ikusi eta entzun nahi".

Euskal Herriko egoera politikoa berria itxaropentsu bizi dute kartzeletan. "Itxaropena ikusten da, baina presoek egoera pertsonalean ez da



Arg.: Angel Elorza

aldakerik ikusten. Gobernuak ez du pausorik ematen. Hor arrisku bat ere ikusten da: esperantza eta ilusioa oso beharrezkoa da, baina ez dago egin. Batzutan ematen du dena egin dagoela, baina hasi besterik ez gara egin. Urratsak eman behar dira bide horretan. Oraindik ere beharrezkoa da militatzea eta borroka egitea".

Lau urte pasatxo egin ditu Iruñeako kartzelan. Intsumisoekin, Itoizko Solidarioekin eta azken aldian HBko Mahai Nazionalekoekin egon da. Euskarazko komunikabideak entzuten zituen, egunean eguneko prentsa jasotzen zuen... "Kaletik gertuago sentitzen zara askotan eta hori ere ez da oso ona. Baina nahiago dut egoera horretan egotea. Beste kartzeletan bakarrik sentitzen da. Iruñean beste babes bat dago. Iruñeako kartzela izan da onena.

Txarrena, Ocañakoa. Isola-mendu ziegetan egotea, egunetan inor ikusi gabe egotea, oso gogorra da. Giroa ezberdina da, banaka edo taldean egon. Herreran bizi baldintzak nahiko txarrak ziren, tentsioa bizi zen, baina hala ere taldean geunden eta oso egoera ezberdina da".

Beasaingo Jokin Alda-nondo eta beste bi lagunekin batera atxilotu zuten Mikel Zumarraga duela ia 13 urte. Aldonondo lehengusua du eta une honetan Burgosko kartzelan dago, zigorraren 3/4a beteta eduki arren. Beste biak ere kartzelan daude.

Herri bizia

Mikelen gurasoak Donostian bizi dira eta Mikel bera han dago egun hauetan, familiarekin ondoan. Aitortu digunez ordea, benetan gustora, Ormaiztegin sentitu da, "Ormaiztegi da nire herria".

Ormaiztegi piska bat aldaituta ikusi du. Baina aldaketarik handiena gazte jendearen ikusten du. "Batetik, asko hazi direlako eta bestetik askoz ere dinamikoagoak direlako. Herri bizia ikusi dut Ormaiztegi". Donostian euskara gehiago entzuten du orain kalean.

Oporralditxo hartuko du orain Mikelek. 5 urteko alabarekin eta familiarekin gozatzeko denbora hartu nahi du. Kartzelan zegoela jaio zen alaba.

JAUREGI

TOLDOAK s/I

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

IBAI-ONDO

Altzariak neurrira


Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA 943 88 05 43

Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



ALKOHOLIKO ANONIMOAK ALKOHOLDUN EDARIEN AURKAKO BORROKAN

"Alkoholak inguru guztia hondatzen du"

Alcoholaren menpekotasuna sendatzeko ahalegina egiten du Alkoholiko Anonimoak taldeak. Alkoholismoa gaixotasuna da eta sendiartekoen babesa guztiz garrantzitsua dute gaixo hauek. Horretarako sortu zen Al-Anon taldea. Bi taldeek bilerak egiten dituzte, esperientziak trukatzu, arazoari irtenbidea bilatzeko. Bi alkoholikorekin eta bi sendiartekorekin egon gara erreportaia hau osatzeko. Bi taldeak anonimoak dira, eta erreportaia honetan ere beraien anonimotasuna gorde dugu. Beraien bizipenak kontatzeko prest azaldu dira, jendearen artean eraginik izan dezakelakoan.

Gure gizartean edariaren eta janaren aurrean ospakizun bat baino gehiago egin izan dugu. Euskaldunon ohitura horixe dugu. Edaria normalean, alkoholduna izaten da, eta hortik, arazo bat baino gehiago sortzen da, neurririk jarri ezean.

Pertsona alkoholikoa alkoholari emana dagoen pertsona da, edari alkoholikoak gehiegi edatearen ondorioz sortutako alkoholarekiko menpekotasuna eta toxikape-na duena. Gaixotasuna da alkoholismoa eta gaixotasun honek adin, sexu eta era guztietako pertsonak harrapatzen ditu. Medikamenturik ez dago gaixotasun hau sendatzeko, baina Alkoholiko



Alkoholiko Anonimoak

Alkoholiko Anonimoek alkoholarekiko daukaten problema konpondu ahal izateko, beren esperientzia, sendotasuna eta itzaropena konpartitzen dituzten gizonezko eta emakumezkoen artean osaturiko komunitate bat da, baita alcoholaren menpekotasuna gainditu ez dutenei laguntza eskaintzen saiatzen dena ere.

Alkoholiko Anonimoen kidea izateko behar den betekizun bakarra edaria uzteko desioa da.

Alkoholiko Anonimoen kidea izateko ez da inolako kuotarik ordaun behar, ez dago sekta erlijioso, alderdi politiko edo bestelako erakunde edo instituziori afiliatua. Ez du gatazketan parte hartu nahi, ez eta edozein arrazoiaren alde edo kontrako iritzia azaldu. Alkoholiko Anonimoek duten helburu bakarra edan gabe egon eta besteei ere horretan laguntzea da.

Anonimoak taldeari esker, batek baino gehiagok lortu gaixotasun hau gelditzea. Talde hau anonimotasunean oinarritzen da eta erreportaia hau idazterakoan ere, anonimotasun hori mantenduko dugu.

Gaixotasun hau sendatzeko, lehenik eta behin, alkoholarekin arazoa duela onartu behar du gaixoak. Eta horixe da zailena. Goierriko alkoholiko batek bere bizipenak kontatu dizkigu.

Onartzea zailena

Goierritar honek alkoholarekin arazoak zituen eta familiako eta lantokiko aholkuz joan zen Alkoholiko Anonimoetara, ez bere go-

goz. "Txarra da arazoa erre-konozitu gabe etortzea. Nik banekien besteekin alderatuz ezberdina nintzela, besteek baino gehiago edaten nuela, etxean iskanbila handiak izaten genituela, beti kantari nembilela... etxean pertsonalitatea aldatu egiten zen. Ni bultza eginda etorri nintzen, etxetik eta lantokitik. Hasieran bileratan nahi nuena bakarrik entzuten nuen. Baina etortzen jarraitu eta arazoa ikusi nuen. Behin onartu eta gero jaramon gehiago egiten nion bileretan esaten zenari. Irakurtzen ere hasi nintzen eta orduan aldatzen hasi nintzen: edatetik ez edatera pasatu nintzen".

Alkoholik gabe zer egin

behar ote zuen pentsatzen zuen hasieran. Baina denborarekin ikusi du, alkoholik gabe, alkoholarekin egin zituen gauza beretsuak egiten dituela. "Ez dakit zergatik hasi nintzen edaten. Hasieran normal hasi nintzen edaten. Edanez gero gauzak errazago egiten nituela ikusten nuen. Oso lotsatia nintzen, pertsonalitatearik ez nuen. Alkoholik gabe ardi errena bezala, azkenekoa izaten nintzen. Edanda, Indurain bezala, denak pasatzen nituen. Orain emazte dudari dantza eskatzeko ere edan beharra neukan. Ez nuen uste alkoholik gabe berdina izango nintzenik. Lehen kantatu egiten nuen eta orain ere bai. Hitz egin ere bai. Alkoholik gabe gainera badakit zer esaten duan. Beste bizimodu berri bat daukat orain".

Gaixotasuna gelditu

Lehenengo tabernetan edaten zuen. Bukaerarako, dendan botilak erosi eta ezkutu edaten zuen, "emakumeek bezala. Lehen emakumeak tabernetan sartzea ez zegoen ondo ikusia eta etxean edaten zuten eta nik ere berdin".

Gaixotasun hau sendatzeko bidea jarri du goierritar honek, beste askok bezala, nahiz eta jakin badakien, alkoholismoaren gaixotasuna ez dela sendatzen; "gelditu egiten da, berrerorketa berrit egon daitezke". Orain ondo asko daki, alkoholak inguru guztia hondatzen duela: "tratu txarra, lanean zure ondoan ari dena arriskuan jartzen duzu, seme-alabengan eragin handia izaten da eskolan batez ere, beste gaixotasun batzuk...".

Familiartekoen ezinbesteko laguntza

Alkoholarekiko menpekotasuna onartu eta Alkoholiko Anonimoetara joaten hastea asko kostatzen dela onartu digute goierritar hauek. Familiartekoek Alkoholiko Anonimoen barru badute beste talde bat, Al-Anon, eta hurbilenekoak bertara joanez gero, errazagoa egiten omen zaie alkoholikoei. *"Familiartekoak ere talde honetan izatea gauza handia da. Nire emazteagatik izan ez balitz, ez dut uste A.A.an jarraituko nuenik. Ni emaztearen atzetik etortzen nintzen"*.

Tabernetan ere ibiltzen da oraindik alkoholiko hau, baina edari alcoholdunik edan gabe. *"Ohitura handia dago hitz egiteko trago bat egin behar dugula esatea. Baina hitz egiteko ez dago alkoholik edan beharrik. Gaur egun alkoholik gabeko edari asko dago eta horiek edaten ditut. Baina pare bat edanda, nahikoa izaten dut"*.

Alkoholik gabe ere bai

Errekuperazioaren hasieran bere emaztea beldur izaten zen tabernan sartzeko. Zerbait hartzera joaten zirenean, hasieran beti emazteak eskatzen zuen. Gero beldurra galitzen joan eta gaixoa hasi nintzen eskatzen.

Bere emazteak adierazi digunez, *"alkohola edaten zuenean ez nintzen berarekin kalera ateratzen lotsa ematen zidalako. Tabernetan bere edariaren erdia edaten nuen askotan, berak hainbeste edan ez zezan, baina hantxe hasten zen lehenengo iskanbila. Alkohola utzitakoa dena konponduta dagoela uste duzu baina beldurra ematen dizu"*.

Al-Anon: sendiartekoen taldea

Alkoholikoen sendiartekoen eta lagun taldea da Al-Anon. Beraien esperientziak, indarrak eta itxaropenak trukatzeko dituzte amankomunean duten arazoari irtenbidea bilatzeko. Astean behin egiten dituzte bilerak; Beasaingo kasuan, larunbatetan biltzen dira 19:00etatik 21:00etara.

Sendiarteko hauen arabera, alkoholismoa familiaren gaixotasuna da eta jarrera aldaketa batek errekupeazioan lagun dezake.

Al-Anonen asmo bakarra, alkoholikoen sendiartekoak eta lagunak laguntzea da, 'Hamabi Urrats' pausoak jarraituz.

Erreportaia hau egiteko bi sendiartekorekin egon ginen eta beraiek aitortu digutenez, talde hau oso garrantzitsua da sendiartekoentzat. *"Alkoholikoaren familia osoa da gaixoa. Horrelako gaixoei nola jokatu behar dugun, zer pentsatu behar dugun... bilerak egiten ditugu esperientziak trukatzeko"*. Alkoholikoentzat beraientzat ere oso garrantzitsua da sendiartekoak gaixoaren parean joatea.

Sendiartekoentzat ere oso garrantzitsua taldearen babesa. Hauek ere onartu dute zailena beraien ingurukoa gaixo dagoela onartzea dela. *"Askok kostatzen da etortzen hastea, baina laguntasun handia da. Gaixoa baldin bada sendatu egin behar da eta horretarako medizinarik ez dago. Gaixok dira baina pertsonak dira"*.

Sendiartekoek adierazi



digutenez, pazientzia asko eta asko eduki behar da eta *"gaur egun jendeak gutxiegia dauka. Horrelako gaixo batekin bikoteko harreman*

bukatu, alabak ez edateko esan zion eta. Edanez gero, denekin haserretzen zela esan zion alabak.

Seme-alabek ere asko sufritzen dute etxean alkoholikoren bat izanez gero. Seme-alabek ere badute Alkoholiko Anonimoen barruan beste talde bat: Alateen. Sendiarteko hauek adierazi digutenez, *"seme-alabei adierazi egin behar zaie aita edo ama gaixo dagoela eta zenbait portaera izaten badituzte, zergatik den"*.

"Alkoholismoa familiaren gaixotasuna da eta jarrera aldaketa batek errekupeazioan lagun dezake"

guztia galtzen da. Maitasuna galtzen joaten da. Bakar-kako gerra bat da. Norberaren buruarekin borroka handia egin behar da". Jarrera aldaketak errekupeazioan lagundu omen dezake. "Oihuka ez da ezer lortzen. Lortzen dena onean lortzen da. Taldeko bileretan gaixo hauekin nola jokatu ikasten dugu. Mehatxuekin gauza asko lortzen dira. Seme-alabek ere zerikusi handia daukate eta eurei esker gauza asko lortzen dira, kasu gehiago egiten diete seme-alabei". Kasu bat kontatu digute: lau urteko alabarekin sartu zen aita alkoholikoa taberna batean. Garagardoa edaten ari zen, baina ez zuen

Taldeak

Alkoholarekin arazoren bat izanez gero, zuzenean edo zeharka, hiru talde badira aukeran. Alkoholiko Anonimoekin harremanetan jartzeko telefonoa: 943 619338. Al-Anon edo Alateen taldeen telefonoak: 943 475403. Telefono hauetara deituz gero, Goierriko edo gertueneko taldeekin jarriko zaituzte harremanetan. Goierri Beasainen, Ordizian eta Seguran daude taldeak. Gerta liteke gaixoa bera Alkoholiko Anonimoetara joan ez eta sendiartekoa Al-Anonera joatea. Ateak zabalik dituzte, alkoholarekin arazoak dituztenei laguntzeko.

Goierriko bertso eskola birritan eta jarraian txapeldun!

L arrazkeneko
haizabe epelaren
baitan ereindako
haziek, udaberriko
ametsondoetan
kulunkaturik, fruitu
joritsuak, eztimamitu
dituzte ekaineko
solstizioari aurre hartuz.
Sustrai irmoetan
finkatutako adaxkak
zeruertza urratzen
hasiak dira izarren
zilarrezko bidean...

Iragan maiatzaren 28an jokatu zen Amasan Gipuzkoako Eskolarteko XIX. Bertsolari Txapelketa. Urtearen buruan egindako lanaren erakuslehoi honetan, bertsolari gazteek aisit aitzineratu zituzten ortziko erregeak ezarritako oztopoak oro.

Gaztetxoek eman zioten saioari hasiera eta lehen liparretik hauteman genuen Haitz Aierbe, Aitzol Munduate, Iban Urdangarin eta Oier Zurutuzak gorpuztutako taldearen erabateko nagusitasuna. Antigu, Oiar-



tzun eta Oñatiko taldeak txukun samar aritu baziren ere, goierritarrek aparteko saioa gauzatu zuten, akatsik gabea, bikaina. Ordubeteko ekinaren ostean, entzuleon eta epaiaren iritziak bat etorri ziren zalantzarik gabeko erabakian, eta Nahikari Gabilondo, Antton Kazabon eta Imanol Lazkanok osatutako epaimahaiak aho batez izendatu zuen Goierriko taldea txapeldun.

Bertsorik onenaren saria eta Mungiarako txartela berriz, Aitzol Munduatek eskuratu zuen gaia jarrita botatako bertso zoragarriari

esker. Aitzitik, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi Ibanek eta Oierrek igorritako aleak; errima aberatsez, hizkuntza goxo eta zuzenaz, arrazoiari indar haundia emanez eta koherentzia haundiz lortuak. Zoragarriak benetan! Epaimahaiak bestela iritzi bazuen ere, inolako ezbairik gabe, hiru goierritarrek merezi izan zuten Mungian jokatuko den Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketarako txartela.

Ez, ez; nola ahaztuko nuen bada ezustekorik zoragarrienak begitandu dizkigun bertsolaria? Izugarria

da Haitz Aierbe gazteak, denbora tarte laburrean eman duen aurrerapausoa. Amasako frontoian egindako saioa da ispilurik gar denena. Sentimendurik sokenenak umore finez azalera tzeko aparteko gaitasuna du hiru denborak denbora berean biltzen dituen ataundar jator honek. Azken boladako saiamen eta grina berberaz jarraitzen badu, ziur nago gauek goizera zeresan handia emango duela gure 'Xalbador Txikiak'. Hala bedi!.

14-18 urte bitartekoak

Hamalau eta hemezortzi urte bitartekoetan oster, zortzi lagun aritu ziren nor baino nor, Andoni Egañaren gidaritzapean. Goi mailako saioa izan ez bazen ere, tarte dastatu ahal izan genuen ale ederrik. Inaki Apalategi goierritarrak txukun gauzatu zuen bere egitekoa, eta beregan ohikoa denez, ederki uztartu zituen umorea eta ironia. Aipagarria izan zen esaterako, ofizioka



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLERETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

Pirinioak Mediterraneotik Kantaurira zeharkaldia

Uztailaren 21etik abuztuaren 29ra astebeteko 5 zatitan

- 1 Banyols (uztailak 21) - Eyne (uztailak 27)
- 2 Eyne (uztailak 29) - Cuanca (abuztuak 4)
- 3 Cuanca (abuztuak 6) - Pinetako paradorea (abuztuak 12)
- 4 Pinetako paradorea (abuztuak 14) - Olloko lepoa (abuztuak 20)
- 5 Olloko lepoa (abuztuak 22) - Hondarribia (abuztuak 28)

Tel.: 943 18 02 53 - J. Ramon Agirre "Marron"

Nerea Elustondorekin egin-dako saioa.

Baina hau ez da guztia, bat-batekoan ezezik, idatzizkoetan ere nabarmendu dira goierritarak. 3. eta 4. mailan, Ioritz Zurutuza ataundarrak eta DBHO mailan Iñaki Apalategik aipamen bereziak erdietsi zituzten, DBH 1. eta 2. mailan Aitzol Munduate izan zela-rik txapeldun.

Irati Goikoetxea eta Iker Zubeldia ere, oso dotore jardun ziren Legazpi eta Arrasateko kanporaketetan. Lehenak, handien mailan estraineiko urtea zuela kon-tuan izanda, ustegabeko ederra eman zigun. Bertsoa goitik behera txukun asko harilkatu eta arrazoiei distira atereaz, nahikoa merezi-mendu egin zuen bere burua finalean kokatzeko. Eta zer esanik ez Iker Zubeldiak. Esaldiak ongi taiutuz, bertsoak inoiz ez bezala erre-matatuz, berarengandik hainbeste miresten dudan ironia eta bizitasuna azale-raturaz eta puntuari hobekien erantzunaz, euskara garbi eta goxoan tolestu zituen bere bertsoak zegamar mu-xu-gorriak. Bere lan bikai-

nak sari hobea merezi ba-zuen ere, finaletik at utzi zuen epaiaren erabakiak.

Itxaropenaren balkoitik, adorea, kuraia eta kemena bidali nahi dizkiot zegamar-rari. Biharrak, hirea behar dik izan, gogoak eta denbo-rak irekiko dizkik orain arte ukatuak izan zaizkian ate eta leihoak. Eutsi goiari!

Eskolartekotik at ordea, Irati Goikoetxea, Aitzol Munduate, Iban Urdanga-rin, Oier Zurutuza eta Haitz Aierbek, 'Lazkao Txiki', 'Orixe', 'Zapirain', 'BBK',

'Legarreta', 'Munibe' eta 'Leioako Bertsopaper Lehiaketan' sari eurrez ira-baztea lortu dute, bat-bate-rako ezezik idatzirako di-tuzten dohaiak agerian utziz.

Ikasleok ikasturtea amai-tua badugu ere, Aitzol Munduatek, eskainaren 30ean izango du Mungian urtea Ohorezko Matrikula-rekin biribiltzeko parada. Eskolan bikain, bertsotan bikainago, irakasle eta ikas-kideok ere, han izango gara gure babesa eskainiz, aste-

roko lan isilaren loratzeaz gozatzen. Zorte on Aitzol!

Hitza hats bihurturik, distira txinpartsuetako erre-torikez ihintzaturiko erresu-mara naramazue zuen baita-ko mundu isilen asmazioan. Nirea zuenganatuz, zuena nireganatuz, ugari bitzaizki-gu horrelako bizipozak!

Trumoiak
jo du
ortzia!

Ekaitz Goikoetxea 'Mekola'
(Goierriko bertso eskolako irakaslea)



Haitz Aierbe



Aitzol Munduate




Iban Urdangarin



Oier Zurutuza



Ioritz Zurutuza



Iñaki Apalategi



Irati Goikoetxea



Iker Zubeldia

EGUZKI INPRIMATEGIA
Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN

Blues
rothers
BEASAIN


PSIKOLOGI KLINIKOA
ARGI
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakiak: E-2644
RPS: 420/95
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**
AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 910 02 00 41

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998
BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA
R.P.S. 213/97
● LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
● ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA
INFORMAZIOA:
Lanegunetan:
☎ 943 16 21 92
Larunbatetan:
10:00 - 12:00
Altzagako Udaletxean
ALTZAGA

ZALDIBIA

Aratz eta Ibon finalera



Ezkerrean Aratz Mendizabal eta Beitia lemoarra, eskubian Ibon Gurrutxaga eta Moran nafarra.

Elgetako lau eta erdiko txapelketako finalean bi herritar izango ditugu aurrez aurre. Kadete mailan jokatzeko duten Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga gazteek joan zen ostiralean eskuratu zuten finalerako aukera, bakoitzak bere arerioa gailendu ondoren.

Ibonek Moran naparra hamalau tantotan utzi zuen partidua gogor batean. Partidua hasieratik oso serio aritu zen eta erraz irabaziko zuela bazirudien ere, Moranek indarra hartu zuen eta gauzak zaildu egin zizkion. Hala ere, zaldibitarren sakeek eta pilotakada bortitzek erabaki zuten norgehiagoka.

Aratzek ere hamalau tantotan utzi zuen Beitia lemoarra tentsio unez beteriko bilakaera izan zuen partiduan. Askok sufritu behar izan zuen zaldibitarrek bizkaitar gaztearen jokuari eusteko. Lemoarrek erruz jotzen zuen pilota ezkerrekin eta burukomin asko sortarazi zizkion Aratzi, baina honek pilotalekuan lekua hartu ahal nagusi zela erakutsi zuen.

Elkarren aurka jokatu beharreko finala etzi, igandea, uztailaren 5ean izango da Elgetako pilotalekuan, arratsaldeko 5etan. Zorte on bioi!

Lan eskaintza

INEM-ek bost herritar kontratazeko aukera zabaldu du ondorengo sei hilabeteetarako:

-Lanaldi osorako kultur eta kirol dinamizatzaile bat (herriko kultura eta kirol taldeen koordinazioa, bideo-zine programa, irratia...)

-Herritarren egoera sozio-ekonomikoaren ikerketa egiteko lanaldi erdirako bi langile.

-Umezaintza-jangela mar-txan jartzeko bi langile lanaldi erdian.

Halaber, udalak beste bi herritar kontratatu nahi ditu lanaldi erdian sei hilabetez peoi gisa aritzeko.

Pediatría zerbitzua

Herriko haurrei dagokien pediatria zerbitzuak ordutegi berria izango du bihar larunbata, uztailaren hirutik aurrera. Zerbitzu hau Ordiziako Osasun Zentroan eskainiko da goizeko 9etatik 11etara eta Beasaingoan 11etatik ordubietara. Gainerakoan, larrialdietarako sendagilearen-gana jo beharko da.

Ondarrura txangoa

Beti Gazte Elkartek antolatutako Ondarrura joango dira herriko jubilatuek, uztailaren 13an. Bizkaiko itsasertzeko herri honetatik Zestoako Arozena jatetxera joango dira bazkaltzera. Bidaia hone-

tako txartelak 500 ogerleko-tan (durotan) daude salgai zaharren egoztan.

Diru laguntzak

Uztailaren 5etik 9ra Miarrizten eta Iruñean uztailaren 19tik 30era Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) antolatutako udako ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei Zaldibiko udalak diru laguntzak emango dizkie. Diru laguntzen kopuru osoa 30.000 pezetakoa izango da. Eskaera guztiak diru kopuru horrekin bideratuko dira. Ikasleko diru laguntzak hauek izango dira: astebete-ko ikastaroarengatik 5.000 pezeta eta bi aste-ko ikastaroarengatik 10.000 pezeta. Informazio gehiago Kultur Etxean (Tfnoa: 943 16 03 38).

1998/99 ikasturtean burututako euskara ikastaroarengatik udalak emango dituen diru laguntzak honako hauek dira. Langabetuei ikastaroko matrikularen %100 ordainduko zaie eta lanean ari direnei erdia. Honetarako, diru laguntzaren eskaera, matrikula ordainagiria eta Euskaltegiko ikaslearen agiria aurkeztu beharko dira.

Urrezko ezteiak

Igande honetan On Antonio Garmendiaren apaizgintzako urrezko ezteien ospakizuna izango da Zaldibian, Santa Fe eta San Migel Parrokiak antolatutako. Eukaristi ospakizunen barnean Meza Nagusia izango da 12etan Santa Fe Parrokian. Herriko semea den On Angel Sukia kardinala izango da elizkizunaren buru hainbat apaizek lagundurik. Bertan bi kristau elkarten izenean opariak eskainiko zaizkio. Eguerdian elkarteko bazkaria izango da frontoi itxian.

Saroi Jauregi - Iñaki Gurrutxaga

14,15, 16... badatoz!

Zaldibiko Gazte Taldeak (ZGT) antolatuta uztailaren erdi aldera II. Gazte Festak ospatuko dira. Egitaraua oraindik zehazteke dagoen arren, hemen duzue antolatutako ekintza nagusien nondik norakoak:

Uztailak 14: "Ingurugiroaren eguna". Goizetik Larunartira igotzeko asmoa dago. Arratsaldez ofizialki emango zaio hasiera festeei txupinazoarekin. Egunean zehar egindako muralari azken ukituak emateko parada izango da eta iluntzean poteo herrikoia izango da trikitiarekin.

Uztailak 15: "Gazteak gara eta harro gaude". Goizerako bizikleta martxa bat antolatu da "Gazteok eta euskal selekzioa" lelopean. Arratsalde honetarako "Gazteok eta sexualitatea" kafe-tertulia izango dugu. Gauean afaria izango da plaza eta ipuin kontalari eta abarrek giroa dute festa.

Uztailak 16: "Bizi baldintzak". Aipatu gai honen inguruko solasaldi bat izango dugu arratsaldean. Jarraian uztailaren zehar jokatu den Sasi-pilotari txapelketaren finala jokatu da. Iluntzerako sukaldari txapelketa bat antolatu dute eta ondoren, herriko gazteek osotutako Bertso tramak azken eguneko parrandari ateak zabalduko dizkio.

Ildo honetatik, Gazte taldeak lerro hauek aprobetxatu nahi ditu gazte eta ez hain gazteei festa hauetan parte hartzeko gonbitea luzatzeko eta aurrerantzean era Gazte Taldearekin batean lanean jarrai dezaten eskatzeko.

MUTILOA

Ekainaren 29an San Pedro eguneko ospakizunak izan baziren ere, festa ekitaldirik nagusienak asteburuan izango dira.

Uztailak 2, ostirala:

19:30ean: Suziriak.

20:00etan: Sagardo dastake-
ta eta txistor jatea.

Ondoren: Oilasko Errea izango da. Trikitilari gazteek alaituko dute giroa.

01:00etatik goizalderarte: Dantzaldia Etxakit taldearekin.

Bukaeran: Txokolate jana herriko enparantzan.

Uztailak 3, larunbata:

12:00etan: Poteo herrikoia.

14:00etan: Herriko gazteen bazkaria.

16:00etan: Haur jolasak.

17:00etan: Futbito eta pilota partiduak herri mailan.



Asier Izuzkizaren trialsin erakustaldia

13-14 urte bitartekoen artean Asier Izuzkiza Gipuzkoako txapeldunordea da. Aurtengo jaietan ere, trialsin erakustaldia emango du. Datorren urtean handiagoekin lehiatu beharko da, eta zaila ikusten du zilarrezko postuari eustea. Dena den Mutiloako koxketan entrenatuz jarraituko du.

Amaia eta Kristina eta Maixa eta Ixiarrek alaituko dituzte bazter guztiak. Eguna ondo amaitzeko baratzuri zopa.

Uztailak 4, igandea:

Kriseilu taldeko txistulariekin goiz eresia.

11:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriako Goruntz dantza taldearen ekitaldia.

12:30ean: Toka lehiaketa, federatu gabekoentzat.

13:00etan: Zeberio eta Gorrotxategi bertsolariak.

Ondoren: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

18:00etan: Bola lehiaketa.

18:00etan: Trialsin erakustaldia.

19:30ean: pilota partiduak.

Ondoren: Bertsolarien bigarren saioa.

Arratsaldeaz eta gauerarte: Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

Oharrak: - Afarirako eta bazkarirako izen ematea herriko Ostatu jatetxean (943 801166). - Tonbola Apaiz-etxean izango da. - Txoznak izango dira.

PATXI erretegia

San Pedro jai zoriontsuak pasa itzazue guztiok!



& 943 80 15 75
Liernia Auzoa
MUTILOA



MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA



OSTATU Jatetxea

Festa onak pasa!
Tel.: 943 80 11 66 MUTILOA



Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako San Pedro Jaiak. Herritarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta bertara hurbiltzen zaretenok disfruta ezazue herriak eskaintzen dizkizuen aukeraz. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!

IDIAZABAL

Boliviatik eta Kongotik: eskerrik asko

Idiazabalgo Udalak aurrekontuaren %0,7 garapen bidean dauden herriei ematea erabaki zuen. Diru hori bideratzeko atzerrian beharrik gehiena dutenekin lanean ari diren hiru herritarrei eman zitzaion dirua. Horietako bik dirua zertan erabiliko den jakinarazi diote orain Udalarai.

Milagros Beltran moja, Boliviako altiplanoan dagoen ingurune pobreak bizi da. Bere kongregazioak eskola bat eta haurren jantokia ditu bertan. Jantoki horretako egoera hobetzeko eskatu zion dirua Milagros Udalari. Udalak aurrekontuaren zati bat, 450.000 pezeta bidali zizkion. Diru horri esker, une honetan jantokian biltzen diren 190 neska-mutikoei astean bitan haragia jateko aukera izango dute. Haur horiek bi ordu egiten dituzte oinez egunero eskolara joan ahal izateko. Milagros haur horien guztien izenean idiazabaldarrei eskerrak ematen dizkie udaletxera bidali duen gutunean.

Alejandro Aldanondok Kongon abelzaintza kooperatiba bat bultzatzeko erabili du Udaletik jasotako dirua. Duela gutxi kooperatiba horren barruan arituko den istalakuntza inauguratu dute, guztira 145 abelburu izango dira bertan. Koope-



Begira jarrita...

Hala egotekoa dago bariantearen gainean jarri duten miradore edo begiratoki berria. Lobio izenez ezagutzen du herritar askok begiratokia jarri duten gain hori. Gorridirako bidean dago, eta bertan bi banku daude. Horietan eserita herri guztia eta inguruak ederki asko ikusten dira.

ratibak guztira 1.300 buru ditu dagoeneko, eta orain hilabete batzuk onartu dituzte estatutuak. Kongoko egoera politikoaren ondorioz eguneroko bizitza zaila dela dio Alejandrok bere gutunean. Herrialde horren etorkizuna beltz ikusten du herritar honek.

Uztailen: kirola

Ikasturte bukaera eta oporren hasiera uztartuz Idiazabalgo Udalak eta Kiroldegia kirola egiteko eskaintza zabala prestatu dute uztailerako. Uda 99 kanpaina, aste honetan bertan hasi da. 45 neska-mutikok baino gehiagok parte hartuko du-

te kanpaina horren barruan dagoen jolasa, eskulanak eta kirola atalean. Arku tiro ikastaroan, berriz, 6 lagunek eman dute izena.

Kiroldegian ere uda honetarako ekitaldi bereziak prestatu ditu Lurdes Intxausti arduradunak. Idiazabalgo 3. Tenis txapelketa gaur bertan jarriko da martxan eta hilaren 19an jokatuko da finala. Tarte horretan egunero, arratsaldetan jokatuko dira partidua Kiroldegi ondoko tenis pistan. Neskek Sofbolean aritzeko aukera izango dute astelehenetik ostegunera arratsaldeko 6,30etan. Uztailaren

bukaeran triatloia egingo da.

Udararen atarian, bukatzerakoan ikasturtearen balantze baikorra egin du Kiroldegiko arduradunak. Lurdesen esanetan, "Yoga eta Aerobic ikastaroetan jende asko ibili da, era berean futbol taldeak ere hemen aritu dira entrenatzen. Mugimendu handia izan da ikasturte guztian kiroldegian". Uztailen ere maila horri eustea espero du. Hil honetan gainera ordutegi ezberdina izango da kiroldegian, astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, goizean 10etatik 13etara eta arratsaldean 6,30etatik 9etara. Abuztuaren itxita egongo da, tarte horretan berrikuntza lan batzuk egingo dituzte.

Herri Eskola

Herri Eskolak zuzendari berria izango du datorren ikasturtea Juan Manuel Garziak zuzendari postua utzi egin baitu beste lan batzuei heltzeko. Irailean hasiko den ikasturterako 16 neska-mutikok eman dute izena, bukatu berri den ikasturtean 16 ikaslek utzi dute Herri Eskola.

Xabier Urteaga

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

MEKANOGRAFIA

Idiazabalen eta Beasainen

UDAKO IKASTARO FUTSEZKO

ETA INTENTSIBOAK

MC Akademia

Beasain: 943 88 99 93

Idiazabal: 943 18 71 88

BEASAIN

Ekainaren 13ko hauteskunde ondoan, bihar, uztailak 3, osatuko da datozen lau urterako udal berria. Alkatea, Jon Jauregi (EAJ-EA koalizioa) izango da beste lau urtean. Gainerako zinegotziak hauetxe: Josi Insausti, Arantxa Aseginola, Ana Asla, Jon Berbel, Jose Antonio Girado, Patxi Plazaola, Pello Garaialde, Andoni Antxia, Arrate Izagirre, Leire Lopez, Aimar Larrea, Jose Luis Elorza, Mari Karmen Gomez, Pablo Parra, Julio Herreros eta Jorge Juan Ouiteral.

Uliriako Haur banda

Uztailaren 9an, Uliriako haur musika bandaren kontzertua izango da. 19:00etan kalejira izango da lehenengo eta ondoren, 19:30ean, kontzertua Loinazko San Martin plazan.

Valentziako herri bateko musika banda da Beasaina etorriko dena.

ONCEko kupoia

Erauskin plazako postuko Itziar Uribealgok saldutako ONCEko kupoia saritua

izan da. 50 milioi banatu ditu Beasainen.

Sendabelar ikastaroa

Sendabelar ikastaroa izango da Ezkiaga Auzo Etxean irailaren 14tik aurrera, astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Matrikula 5.000 pezetakoa izango da Beasainen errolatuentzat; gainerakoentzat 5.500 pezeta. Izenemateak Udaleko Kultura Sailean egingo dira irailaren 1etik aurrera.

Pediatria: larunbatetako larrialdiak

Uztailaren 1etik aurrera larunbatetako pediatriaren larrialdietako ordutegia ondorkoa izango duzue: goizeko 9etatik 11etara, Ordiziako Osasun Zentroan; goizeko 11,30etatik ordu bietara, Beasaingo Osasun Zentroan.

Arratsaldeko 5ak arte, pediatria arloan larrialdien zerbitzua Beasainen izango da.

Udal berria bihar aukeratuko da



Arriarango jaiak asteburuan

San Pedro jaiak ospatuko dituzte asteburuan Arriaranen, San Pedro eguna asteartean ospatu bazuten ere.

Gaur, uztailak 2, gazte afaria izango dute 21:00etan. Ondoren, gaueko 12ak aldean hasita, Kontrairo taldearekin dantzaldia.

Uztailaren 3an, arratsaldeko 6etan pilota partiduak izango dituzte Euskal Herriko Hegoaldeko eta Iparraldeko pilotarien artean. Lehenengo partidua: Barandaia-Pouyets Olano-Galarragaren aurka; bigarren partidua: Alfaro-Mugida Saralegi-Etxeberriaren aurka.

Gauean zikiro jana izango dute eta ondoren dantzaldia Xitoak taldearekin.

Ekaitz Goikoetxea

Ekaitz Goikoetxea beasaindar bertsolariak Arratiako bertso eskolak antolatutako II. Koplapaper lehiaketa

irabazi du, 'Ilargipeko ametsak' bertso sortarekin. Iza diarekiko eta neskatala batekiko harremanak uztartzen ditu beasaindarrak.



BILTEGIRATZE SISTEMAK

*San Pedro zorian tsak
arriarandarrak*

Salabatore Auzoa, 17
82 p. k.
BEASAIN

☎ 943 88 30 15
☎ 943 88 24 40
Faxa: 88 97 41

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ARRIARAN karrozeriak

Salabatore Auzoa- Izarraitz, 4
☎ 943 88 70 91
BEASAIN

Zure esku jartzen ditu:

- ✓ Txapa eta pintura-lanetako azken aurrerapenak.
- ✓ Ibilgailu industrialak pintatzeko labe-kabina.
- ✓ Bankadetan egindako konponketen garantia.
- ✓ Garabi zerbitzu iraunkorra, tfnoa: 943 88 32 53
- ✓ Aurrekontuak egiten ditugu inongo konpromezurik gabe.

ZATOZ ETA IKUS EZAZU!

LAZKAO

Pilota goruntz Lazkaon



Herriarteko txapelketan parte hartu zuten pelotariak.

Arg.: Ane Irastortza

Badira 10 urte jada, Iñaki Arruabarrenak, pilota eskola sortu zuela herrian. Ekin-tza bide horren haritik, Lazkaon, Herriarteko Txapelketa jokatzeko hasi zen duela lau urte. Txapelketa hau jokatzeko, arrakasta itzela zen sekula horrelakorik egin ez zuen herri batentzat, baina orain, gainera, emaitza onak lortzen ere hasiak dira orainarteko lan bikainaren ondorioz.

Esan bezala, Iñaki Arruabarrenak hasi zuen lana duela 10 urte. Garai hartan, hamar gazte ingururi erakusten zien pelotan Iñakik, eta gaur egun 50en bat izango omen dira gutxi gora behera. Urteen poderioz, gainera, laguntzaileak bilatzen ere jakin du Iñakik, eta orain, gazteek irakasle pres-tatuagoak dituztela esan be-

harra dago. Hala nola, gaztetxoenei, Jabier Gelbenzuek erakusten die. Jabier, Herriarteko Txapelketa irabazia da Idiazabalgo taldearekin eta bistan denez eskarmentu handia du pilota munduan.

Herriarteko Txapelketan parte hartzen duen taldearen prestatzaileak, berriz, Pako Garmendia eta Joxe Mari Ruiz dira. Iñaki Arruabarrenak, oraindik ere, lan garrantzitsua egiten du talde horretan, bera baita taldeko koordinatzaile eta delegatua.

Arestian aipatu dugun bezala, emaitza onak lortzen hasiak dira gainera lazkaotarrak. Aurten, lehenengo aldiz, final laurdenetan sartu dira Zaldibia eta Usurbil bezalako talde garrantzitsuei irabazi ostean. Final

Ekintza ugari Maizpiden

Datorren astelehenean, hilak 5, hasiko dira udako ikastaroak Maizpide Euskaltegian. Urtero bezalatsu, ekintza ugari antolatu dira bertako ikasle eta lazkaotar guztientzat. Ekintza guztiak, Maizpiden burutuko dira gaueko bederatzietatik aurrera, eta hauek izango dituzue uztaillekoak behintzat.

Uztailak 7, 'Goizeko Izar' antzerki taldeak, 'Ama pasota' antzezlan eskeiniko du.

Uztailak 15, Koldo Ameztoui ipuin kontalaria, 'Makilarakin' ipuina kontatuko du.

Uztailak 20, Goierriko bertso eskolako kideek, 'Kriston gaua' antzezlan bertsoan eskainiko dute.

Uztailak 22, Amaia eta Ruth trikitilarien emanaldia.

laurdenetan, Azkoitiren aurka nahiko erraz galdu bazuten ere, esan beharra dago Azkoiti dela Gipuzkoako talderik indartsuena eta lazkaotarrak beste talderen batean baleude aurrerago iristeko aukera bikaina izango lukete. Emaizta hauekin, datorren urteko txapelketan, zerrendaburu izatea lortu dute eta beraz, talde indartsuenekin beranduago jokatzeko egokituko zaie.

Esan beharra dago gainera, Lazkaoko gazteekin ari-tzeaz gain, Olaberriko gazteekin ere lan egiten dutela eta eskuzko modalitateaz aparte ere palaz ere lan bikaina egiten ari dira.

Hauek dira Herriarteko Txapelketako taldea osatu dutenak. Kadetetan: Jon Sorraluze, Arriet Arzelus eta Patxi Altuna, jubeniletan, Eneko Aldasoro eta Jon Ga-

larraga eta azkenik, afizio-natuetan, Joseba Aldasoro, Patxi eta Joxe Mari Ruiz eta Pako Garmendia. Ziur gaude, datorren urtean, emaitzak hobetzen joango direla, baina, horretarako, jende gehiagoren laguntza eskertuko lukete, adibidez partiduak ikustera joanez.

Labur labur

- Asteazkenean, Kultur Batzordeari Lazkaoko mapa toponimikoa aurkeztu zitzaion.
- Pintura ikastaroan ibili diren ikasleak, erakusketara egingo dute ekainaren 28tik uztailaren 9ra.
- Uztailaren 5ean etxebizitza sozialak tokatutakoei etxeak erakutsiko zaizkie, eta hurrengo egunean, eskriturak egingo dituzte Udaletxean.

Urko Irastortza

Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

AMEB

Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Sagardotegiko menua
- * Asteburuko menu bereziak
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Karta zerbitzua
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

ORMAIZTEGI

Iñaki Maiora berriz ere alkate

Ekainaren 13ko hauteskundeetako emaitzen ondorioz, EAJ eta EA alderdiek aurkezturiko hautagai zerrendak jaso zituen botorik gehien. Ondorioz, zerrenda bateratu horretako lehen hautagaia den Iñaki Maiora Oria izango da berriz ere alkate, datozen lau urteetan. Gainerako zinegotziak, EAJ-EAko 5 eta EHko 3, hauek dira: Jon Mikel Murua, Iñaki Urdangarin, Xabin Ezkurdia, Lierni Ormazabal, Karlos Leturia, Oihana Oñatibia, Igor Elortza eta Roman Larena.

Jubilatuen elkarteko tabernan lan eskaintza

Jubilatuen egoitzan dagoen tabernan lan egiteko aukera dago. Epea 2000. urteko abenduaren 31 artekoa da, gehienez ere 10 urtera luza daiteke. Edozein herritarrek bertan lan egitea nahi izanez gero, nahikoa du udaletxera joan eta bere nahia adieraztea. Aurkezleei argibideak udaletxean bertan emango

dizkiete eta ondoren udala aurkezleekin harremanetan jarriko da.

Lierniko erromeria

Aurten ere iritsi zaigu Liernira erromerian joateko eguna. Hain zuzen egun hori uztai-

laren bigarren igandean ospatu izan dugu, aurtengo uztailaren 11n. Oraindik egitaraua osaturik aurkitzen ez bada ere urtero ohi bezala Meza Nagusia, bertan prestatuko den bazkari herrikoia, lagun-

taldeen arteko herri-kirol lehiaketak, haurrentzako ekintzak... osaturiko egitaraua zabala izango dugu. Beraz egun pasa egiteko aukera paregabea dugu aurtengoan ere Lierniko gainean.

Mikel, ongi etorri etxera! Ongi etorri herrira!

13 urtez espetxean egon ondoren Mikel Zumarraga Luzuriaga herritarrek askatasunaren argia ikusteko aukera berreskuratu du. 13 urte luze igaro dira lagun genuen Mikel herritik eraman zutenetik. Guztiontzako urte asko izan dira, Mikel fisikoki urrun somatu ditugunak. Hala ere fisikoki urrun izan arren, jakin ezazu herritarren buru bihotzetan beti ere gure artean izan zaitugula. Herrian ospatu izan diren ekitaldi eta lagun arteko ekintzetan Mikelek beti leku bat izan du. Adibide gisara gabon ekintzen amaieran herritarrok bat eginik abestu izan dugu 'Ator, ator mutil etxera!' aipa dezakegu. Guztion nahia herritik urrun genuen Mikel ahalik eta azkarren herrian izatea zen. Beraz orain itxaropentsu aurkitzen gara, berriz ere Mikel askatasunean bizitzeko aukera eskuratu baituzu. Bide luzea egin izan duzu, maldan gorako bidea. Baina zuk Mikel beti erakutsi izan duzu maldan gorako bide horretan kemena eta indarra. Guztiontzako eredugarri izan zara bide gogor ho-

ri eraman izan duzun eragatik. Bestetik askotan bakardadean sentitu izango zinen, askotan herritarrek zurekin ahazturik ote geunden somatuko zenuen. Askotan egunerokotasunak dakarzkigun arazoetan sarturik bizi izan zurekin behar bezala ez ohartzea ekarri izan digu horregatik lerro hauetatik barkamena eskatu nahi nizuke. Hala ere jakin ezazu Mikel herrian izan zaitugula. Horregatik gaur jaso ezazu guztion ongi-etorri eta besarkadarik beroena. Mikel, ongi etorri etxera! Ongi etorri zure herri Ormaiztegira!

Mezu hau ekainaren 25ean Ormaiztegiko enparantzan Mikeli egin zitzaion omenaldi beroan egi bihurtu zen. Bertan Mikeli ongi etorria emateko txalaparta, bertsolariak, dantzariak, hizlariak eta herriko taldeen parte hartze eta opari eskaintza egin zitzaizkion. Ekitaldiari amaiera herriko kaleetan zehar trikitiaz alaiturik egin zen kalejira batek eman zien. Ondoren Itxune erretegiaren lagun arteko afaria ospatu zen.

Aitziber Murua

ITSASONDO

Ekainaren 13ko hauteskundeetan aukeratu ziren udala osatuko duten zinegotziak. EH izan zen boto gehien lortu zituen alderdia eta beraz, EHko zazpi hautagaiak izango dira Itsasondoko udala osatuko dutenak. Lau urtetako ardura bere gain hartuko dute uztailaren 3an eguerdiko ordu batean udaletxean egingo den udalbatzar irekian. Kandido Sagarzazu preso politikoak ere, zerrendako 2. hautagaiak, bere karguari zin egin diezaion espetxetik ekarriko dute larunbateko udalbatzarrera.

Eskolarako irtenbide bila

Ekainaren 24an Itsasondoko Herri Eskolako irakasleak, zenbait guraso eta Jose Mari Otegi alkatearekin batera, Donostiara joan ziren Hezkuntza Sailburuarekin hitz egiteko asmoz. Hezkuntza Sailak eskolako haur kopurua kontuan izanda, irakasle bat kentzeko asmoa dutela adierazi zien Herri eskolako irakasleei. Erabaki horren aurrean beren ezadostasuna adierazi eta irtenbide bat bilatu nahian Hezkuntza Sail-

buruarekin elkartu ziren. Sailburuarekin hitz egin bazuten ere ez zuten ezer lortu.

Jaietarako bilera

jaiak hurbiltzen ari direla eta, jaietako komisioak Andra Mari jaien egitaraua prestatzeko asmoz bilera irekia deitu du. Uztailaren 6an gaueko zortzietan udalean egingo den bilerara hurbiltzeko deia egin die herritar guztiei bakoitzak bere proposamen eta emendakinak eman ditzan.

Sendotza

Adin ezberdinetako 12 itsasondotar gazteri sendotza eman zien Jose Maria Setien Gotzain nagusiak ekainaren 19an. Igor Aguilar, Asier Solis, Eneko Argaziz, Borja Aranburu, Zugaitz Ayuso, Oroitz San Sebastian, Mikel Gaztañaga, Garikoitz Etxeberria, Ainhoa Martin, Mikel Aranburu, Olatz Arratibel eta Aloña Iturrioz izan ziren Andra Maria elizan sendotza egin zuten gazteak.

Nagore Etxeberria

ORDIZIA

Final handia: Orlegi-Matxain

Finalerdiak jokatu ondoren igande honetan emango zaio amaiera XX. Lagunarteko Futbol Txapelketari. Finalean Orlegi Tabernak eta E.R.Matxain Ilepaindegiak neurtu beharko dituzte indarrak, finalerdietan Badago eta Urbitarte Sagardotegia gainditu ondoren. Orlegi 2-1eko emaitzaz nagusitu zitzaion Badago taldeari eta Matxain, aldiz, 1-0 Urbitarteri.

Finala igandean jokatu da, goizeko 11:30ean, ohi bezela anexo futbol zelaian. Aurretik, ordea, 3. eta 4. postuak erabakitzeke Badago eta Urbitartek jokatu dute, 9:30ean hain zuzen. Finala jokatu ondoren, herriko tabernetan elkartuko dira txapelketan zehar parte hartu duten jokalariek guztiak eta ondoren bazkari handia egingo dute pilotalekuan. Sari banaketak egin ondoren herriko kaleak alaitzen jarraituko dute futbolari guztiak.

Futbolaz gain, saskibaloia ere hor dago. Uztailaren 8rako lehen fasea amaituko da eta ondoren jakingo da zein koadrila izango den garailea. Aipatu aurren 17 talde ari direla lehian.

Udalaren osaketa

Hauteskundeak igaro ondoren eta emaitza guztiak begibistan izanda, uztailaren 3an aurkeztuko dira zinegotzi eta alkate berriak. Bakoitzak bere kargu berrian herriaren alde egin beharko du hortik aurrera lan.

EHren esker onak

Ordiziako Euskal Herriarrok taldeak eskerrik beroenak eman nahi dizkie herri-tar guztiei, hauteskundeetan



Urdanetaren 25. urteurrena

Urdaneta eskolaren 25. urteurrena ospatzeko ikasle ohi, irakasle eta gurasoek bazkaria egin zuten. Bertan 452 lagun elkartu ziren giro ederrean. Arboledan ere 262 haur elkartu ziren ospakizun hauen barruan.

eman duten laguntzagatik eta, bereziki, hauteskunde lanetan aritu direnei. Era berean zera jakinarazi nahi die herritarrei, Ordizia eta Euskal Herriaren alde adoretzu eta kemenez arituko dela EH indar guztiekin.

Agostinho memoriale

Aurreko alean aipatzen genizuen bezala XII. Agostinho Memoriale jokatu da uztailaren 3an, arratsaldeko 3,30etan hasita. Lasterketa

hasi aurretik, Beasainen, bizikletan zihoala kamioiak harrapatuta hil zen Junkal Gili omenaldia egingo zaio. Ondoren, Zaldibia aldera egingo du bizikleta martxak Larraiztik, Abaltzisketara, Alegin lasterketa bukatzeko. Jarraian Itsasondora joan eta hemendik Ordiziara erlojupekoa jokatu da.

Altamirako jaiak

Jai nagusien aurretik beste auzo batean ere ospatuko dituzte euren festak. Otegi-

neakoak amaitu ondoren Altamirari dagokio orain txanda. Berauek uztailaren 10 eta 11n ospatuko dira eta ziur denok ondo pasatzeko moduko egitaraua prestatuko dutela antolatzaileek.

San Fermin zozketa

Zozketa famatua uztailaren 7an egingo da Txindoki tabernan. Txartel edo boleto ugari saldu dira dagoeneko. Dena den, zozketa egunerako falta diren egun gutxi hauetan beste hainbeste salduko delakoan daude antolatzaileak, honela San Jose egoitzaren aldeko irabaziak igoko direlarik.

Kimetz literatur saria

Juan Gonzalez eta Maialen Zubeldiaren idazlanak izan ziren epaimahaikoen ustez Kimetzek antolatutako V. Ipuin Kontaketako onenak. Juan Gonzalez donostiarrak "Arte y Ensueño" lanarekin 100.000 pta.ko sari polita poltsikoratu zuen eta Maialen Zubeldia ikaztegiatarrek ere beste hainbeste lortu zuen "Agur Kattalin" lanarekin.

Aitor Calvillo



Jai nagusiak iristear

Uztailaren sartzearekin batera herriko jai nagusiak badatozkigula erraz antzeman daiteke. Koadrila egunerako blusa berria egin behar dugula, matutinarako moxorroa prestatu beharra dagoela, noiz tokatzen da gaupasa egitea, lanean jai eskatu beharko dut... non-nahi entzun daitezke honelakoak. Festa batzordeak egitaraua ia prest dauka eta bertan aipatu beharrekoa da aurreko urteetako ildotik jarraitu dutela. Txirrindulari proban partehartzaile ezin hobeak izango ditugulako ustean gabilta, hor baitabilta Marco Pantani, Laurent Jalabert eta honelako izenak denon ahotan. Bestela, hor izango ditugu ohiko danborradak, Santaneroak, barearen erreketak e.a. Izango duzue datorren alean festei buruzko berri zehatzagoa.

ATAUN

Ikasturteari adio!

Urtero bezala ekainarekin iritsi zitzaizkigun uda, San Juanak eta suak, kurtso bukaera, Otso Festa...

Ekainaren 23an hartu zituzten oporrak eskolako haurrek eta hauekin batera ostiralero aireratzen den Otsoa Irratiak. "...hemendik bagoaz baina ez zaitugu ahaztuko!" esanez agurtu zuten 54. alera iritsi den 'Eguzki Berri' eskolako al-dizkaria, datorren ikasturtean behera ikastera joango diren 6. Mailako ikasleek.

Egun berean eman zitzaion hasiera ekintzaz beterik zetorren Otso Festari ere eta, iluntzearekin bat piztu ziren herriko auzo eta baratzetan San Juan suak eta atarietan jarri lizar adarrak.

Ekainaren 25ean Joxe Arratibelekin ordubete atsegin bat pasatzeko aukera izan genuen udaletxeko areto nagusira hurbildu ginenok. Joxek, Ataungo kontu zaharrei buruzko liburu berria argitaratu berri du eta hori aitzakitza harturik, eta horrenbeste urtetako lana eskertu nahian, Zelai etxeen azpian kokaturiko udal liburutegi berria "sinbolikoki" inauguratu zen, Joxe Arratibelen liburuak oraindik ere hutsik dauden apaletan jarritz. (Ofizialki udazkenean inauguratuko da).

Ikasturte bukaerako kirol eta kultur aste hau larunbatean amaitu zen. Arratsaldean kirol desberdinetako finalak. Ondoren herriko abesbatzaren, Eateren eta Zumaiaiko San Pedro abesbatzaren emanaldia elizan, eta azkenik afaria eta sari banaketa Bitorrenen. Gainera eskulan ikastaroetan



1952ko Santaixabeletako argazkia

Ataungo dantza taldeko kideak dira.

Goian (ezkerretik-eskubira): Hilario Munduate (irakaslea), Sebastian Auzmendi, Pantxike Mujika, Antonio Mari Aizpurua, Imanol Baztarrika, Joxe Dorronsoro eta Julian Munduate (irakaslea).

Behean (ezkerretik-eskubira): Joxe Insausti, Joseba Auzmendi, Antton Kerejeta, Xabier Barandiaran eta Alfonso Auzmendi.

herritarrek egindako lanak egon ziren ikusgai udaletxeko ganbaran aste guztian zehar.

Eta uztailarekin datozkigu ostiral honetan Aian hasiko diren Santixal festak. Aurtengo berri aurreko zenbakian eman nizuenez, aitona Julianengana jo nuen, entzuna bainion garai hartan egun handia izaten zela Santixal eguna, aietarrentzat ezik gainontzeko herritarrentzat ere. Honela, Aia-ra prozesioan oinez joaten zirela kontatu zidan. Prozesioa San Martingo elizatik abiatzen omen zen Don Juan Txiki apaiza (eta Don Franzisko ondoren) eskuan gurutzea zuela aurretik zelarrik, eta atzetik herriko agintariak, Miel Mari eta txistulariak eta azkenik herritarrak.

Goizeko 8,30ak inguruan, eliz kanpaien doinupean ekiten omen zioten biderei, Arrondo, Gaztiñarre, Urkillako gaina zeharkatuz Aiako plazaraino. Bidean zehar jendea atxekitzen joaten omen zen. Iritsitakoan apaizak gurutzea elizan utzi eta guztiek Ixabelenen salda beroa hartzen omen zuten meza nagusiaren aurretik. Ondoren meza nagusia ospatzen omen zuten lau-bost apaizek jendez gainezka egoten omen zen elizan. Meza ondoren txistulariak eta bertsolariak izaten omen ziren plazan eta gero bazkaria. Agintariak alde batetik eta herritarrak bestetik. Hauek etxetik eramandakoak jateko elkartzen omen ziren Aiako zelaietan.

Arratsaldean dantzariak dantza egiten zuten eta ondoren erromeria izaten

omen zen Miel Mariren ttuntunarekin.

Iluntze aldera apaizak goizean ekarritako gurutzea hartu eta bueltako biderei ekiten omen zioten. Bidean, Gaztiñarren, goizean ezin eta prozesiozaleen bila joandakoekin elkartzen omen ziren eta ardoa, gaztaia eta ogia jaten omen zuten. Arrondora iritsitakoan, bidean errosarioa erreztatuz eta 'San Inazio' abestuz egiten omen zuten, Rafaele-ne parean gelditu eta dantza saioa Miel Mariren ttuntuna lagun. Orduan trafiko arazorik ez izaki! Dantza saioaren ondoan San Martingo elizara zuzenean, han gurutzea utzi eta egunari bukaera plazan ospatzen zen erromeriarekin ematen omen zioten.

Prozesio honetan dantzari txikien taldeak hiruzpalau aldiz bakarrik hartu omen zuten parte. Lehenagoz gerra zibilaren aurretik, bi dantzari talde eta irlandera (emakumezko dantzariak) talde batek.

Gerra garaian ez omen zen prozesiorik egin eta ondorengo urteetan ere pare bat aldiz bakarrik joan omen ziren dantzariak prozesioan. Aldi horietako baten lekuko 1952 urte inguruan Aiako bikarioetxe aurrean ateratako argazki hau.

Udal liburutegia

Udal liburutegia ekainaren 28tik irailaren 6ra arte, astelehenetik larunbatera, goizeko 10etatik 12etara egongo da irekita.

Agurtzane Bikuña

ZEGAMA

Xabier Azurmendi eta Janire Urbietak Segurako dantza txapelketan



Xabier Azurmendi zegamarra eta bere bikote den Bergarako Janire Urbietak 15 urte bete arteko Bergarako Euskal Herriko dantza txapelketa hiru aldiz irabazi ondoren, aurtengoan dela eta, lehen aldiz handien mailan parte hartu dute Segurako Euskal Herriko txapelketan.

Seguran lehen aldiz parte hartu eta maila ona erakutsi du bikoteak, honen adierazgarri, ekainaren 19an bikote guztietatik finalerako 12 sailkatuen artean suertatu ziren eta 20an bi sari eskuratu zituzten. Lehenik 'Gillermo Areizaga' saria, lehiaketan lehen aldiz parte hartu dutenen artean posturik hoberena lortzeagatik eta bigarren saria bikote gazteenari dagokiona izan da.

Denboraldia ongi hasi dute eta horrela jarraitzeko animoak izan ditzatela. Zorionak bioi eta aurrera!

Mugaz muga 99

Datorren uztailaren 17an eta 18an burutuko da aurtengo Mugaz muga 99. Ibilaldi honetan parte hartu nahi du-

ten guztiek izena udaletxean, Txanton eta Baztartxo edaritegietan edo uztailaren 8an, iluntzeko 8,30etan Kultur Etxean eman dezakete, egun horretan bertan lehen antolaketa bilera egingo delarik. Izena emandakoak bilera horretara joatea komeni da.


Bi egun horietarako egitaraua hau da:

Larunbata: Maittegitik irten eta San Adriana mugaz muga oinez. Bertan afaldu eta kanpinetan lo egin.

Igandea: San Adriandik Zegamara mugaz muga. Bazkaria Ostaturun. (Bazkaria Kultur Etxeak ordaintzen du).

Barrenaldeko IV. Bazkaria

Aurtengoan ere, aurreko urteetako jendearen erantzuna



'Ruta Quetzal Argentina' Zegamatik igaro da

Lehenengo ostiralean, ekainaren 25ean izan zen 'Ruta Quetzal Argentina' herriko pasatzen ikus-teko parada. Arantzazutik Beundera oinez ibilaldi ederra egin eta San Adrian eta kaltzada erromatarri buruzko

hainbat kontu entzun ondoren, herrialde desberdinetako gazteei zein antolakuntzari (beraien artean Miguel de la Cuadra Salcedo) ongi-etorri ederra egin zitzaion herrian.

Zegamako Udalak eskerrak eman nahi dizkie, ibilaldian bidea erakutsiz, ongi-etorrian musika tresnez zein dantza eginez parte hartutako guztiei. Modu berean ongi-etorrira urreratu ziren herritar zein kanpotar guztiei ere.

ikusirik, Barrenaldeko IV. Bazkariaren antolaketa aurrera doa. Uztailaren 17an izango da, iaz bezala, Intxaustiko Industrialdean. Bazkaria ordu bietan hasiko

da baina ordu bata ingurutik aurrera pintxoak eskainiko zaizkie bertaratuei. Prezioa, 3.000 pezeta (hamar urtetik beherakoentzat 1.500).

Bazkarirako txartelak uztailaren 9an, arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean Arrigetxen erosi ahal izango dira. Egun horretan txartelak erostera joan ezin duenak Arrigetxera (943 801116) edo Ondarguenera (943 801239) deitu dezala uztailaren 11 aurretik. Mesedez izena emateko epeak errespetatu.

San Adriango ermita berriua

San Adriango ermita auzolanean margotua izan da, txukundu ederra eman zaio-larik. Eskerrik beroenak beraz bertan aritu direnei.

*Maidor Azurmendi
Eduardo Albizu*

Pregoi idatziaren 1. lehiaketa

Aurtengo San Bartolome bezperan, Belearen jaitsiera egiteko asmoa dago. Belear egingo du aurtengo pregoia, baina Belearen ahotik esan behar den testua falta da. Horretarako Kultur etxeko batzordeak San Bartolome jaiei buruzko pregoi idatziaren lehen lehiaketa antolatu du.

Asmoa: Belear hitz egingo balu bezala pregoi idatzi bat prestatzea. Iraupena: gutxienez 2 minutu eta gehienez 5 minutu. Gaia: San Bartolome jaia 1999. Forma: prosa edo hitz lauz, olerki moduan edo bertsotan aurkeztu daiteke lana. Saria: 2000. urteko San Bartolome jaietako programan argitaratzea pregoia, 15.000 pezeta eta oroigarria.

Lanak aurkezteko epea eta era: uztailaren 16an bukatuko da epea. Testu idatzia kartazal itxi batean aurkeztu behar da, barnean ezizen bat sartuaz. Beste kartazal baten barnean, egile edo egileen izen-abizenak eta telefonoak sartu behar dira, azalean ezizena jarritz.

Oharra: zegamarra izatea baloratuko da; gutxienezko mailarik ez badago sariketa desertuan utzi daiteke; irabazleak/ek ez du/te jendaurrean agertu beharrik izango.



1965. urtean jaioetako ordiziarrek

Ordiziako Urdaneta ikastetxekoak dira argazkikoak. 1965. urtean jaioetakoak dira eta 4. mailan zebiltzan argazkia atera zutenean.


Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Jesus Muriel, Jose Antonio Etxeberria, Faustino Garmendia, Jose Luis Arruabarrena, Iñaki Saez, F. Javier Saavedra, Joxe M. Iraola, Jesus M. Satrustegi, Joseba Andoni Agirre, Torres, Montxi Aranburu.

2. lerroan: Anjel Insausti (irakaslea), ezezaguna, Koldo Garmendia, Sanchez, Matxain, Txuku Peñalber, Jose Karlos Perez, Javier Cuadrado, Magdaleno, Iñaki Alustiza, Agustin Uranga, Jose Javier Barandiaran, Montero, Sanchez, Azpilikueta eta Imaz.

3. lerroan: Jose M. Garzia, Eugenio Oiarbide, Pedro Luis Aguado, ezezaguna, Ibañez, Alberto Liebana, Zurutuza, Xixio Mujika, Manu Beriain, Eduardo Martinez, Joseba Iñaki Riaño eta Bizente Garmendia.

Beheko lerroan: Miguel Angel Alonso, Molies D'Ayer, Kargus Fajardo, Muriel, Mikel Milo, Aguado, Arias, Morales, Sedano eta Sedano.

OSKARBI
OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.

ZURGINDEGIA

✕ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



MUJIK A
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Astero Euskaraz Bizitzeko



KONPROMISOAREN KOLOREAK DITUGU

(Eragutzen gaituzu?)

ARGIA jaso nahi dut astero

HARPIDETZA SARIAK (BEZa barne): Hego Euskal Herria: 15.000 pta • Iparr Euskal Herria: 717 libera • Espainia: 15.000 pta • Beste Atzerriak: 19.300 pta • Airez: 30.225 pta

Markatu x batez zure aukera:

- ☐ Hilabetez dohainik jaso nahi dut ARGIA berria ezagutzeko
☐ Urte osoko harpidetza egin nahi dut. (CD bat opari jasoko duzu)

Izena: 1. deitura 2. deitura:
 N.A.F./N.I.F.: Helbidea:
 Posta kodea: Herria: Herrialdea: Tel./Faxa:

SOILIK URTE OSOKO HARPIDETZA ESKATU DUENAK BETETZEKO:

Ordainketa mota (markatu x batez):
 (Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik)

Bankuz ☐

Transferentziaz ARGIAren kontura ☐

Banku edo aurrezki kutxa: Titularra:
 Titularraren telefonoa: Titularraren helbidea:

Entitatea ☐☐☐☐

Sukurtsala ☐☐☐☐

K.D ☐☐

Kontu zenbakia ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

DATA:

SINADURA:

Harpidetza-orri hau bete eta bidali helbide honetara:

ARGIA, Harpidetza Saila: Zirkuitu Ibilbidea, 15. pabil. 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) • Tel.: 943 37 15 45 • FAXA: 943 36 10 48 • posta-e: harpide@argia.com • www.argia.com
 ARGIAk zure datuak gure arteko harremanetarako soilik erabiliko dituela bermatzen du.

UDARAN DEITZEA
 EROKERI BAT IZAN DAITEKE...



... EDO PARADISU BAT



JATETXE EDO HOTEL BILA ZABIL?

Une batean telefonoz erreserba egin ezazu

TRAFIKOAREN INFORMAZIOA?

Zure kotxetik segundu batean

HONDARTZAN ?

Haztu kabinak eta kolak

OPORRETAKO ETXEAN?

Beti prest komunikatzeko

LARRIALDIAK?

Berealako irtenbideak

LOKALIZATUA EGON BEHAR DUZU BETI?

Zure mobila beti eskura

movitel 2000
 Telefono Mugikortasun
 Informatikaren
 proiektuaren

MoviStar
 activa



Mugikortasun Digitaleko Zentroak

Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63
 Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89

Banatzaile ofiziala:

MoviStar

www.movitel.com